

IDATZ & MINTZ

Literatur atalen sorta

45


Aurkibidea: Adolfo Arejita: BITAÑO PLAZARA. **3.** Miren Agur Meabe: POEMAK. **11.** Amaia Iturbide: LAUTE-GAUAK. **12.** Adolfo Arejita: *ENZUN EGUIZU CER BARRI DOGUN*: GABON KANTEAREN AURKEZPENA. **17.** Jabier Kalzakorta: *ONTZIAK EDER DU BELA EDO ITSA-SU ELIZALDEKO* BALADA: BI ALDAERA BERRI ARGITARAGABEAK. **26.** Miren Ibarluzea: POEMAK. **37.** Iratxe Ormatza Imatz: GIZON TXIKIA. **40.** Iñigo Roque: FUMATTO, LABIRINTOAK, ATLAS ZAHARRA. **42.** Andrés Urrutia: AZKUERI GORAZARREA. **44.** LIBURUAK. **49.** *Idatz & Mintzen* zenbaki honegaz batera, Mikel Zarateren *Hizunigu* idazlan orain arte argitaratubakoa agertu da separata moduan.

ARGITARATZAILEA
Labayru Ikastegia
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA
Adolfo Arejita
Asier Astigarraga
Jesus A. Etxezarraga
Jabier Kalzakorta
Miren Agur Meabe
Lourdes Unzueta
Andres Urrutia

ARDURADUNA
Igone Etxebarria

DISEINU EDITORIALA
Ikeder, S. L.



Argitalpen hau Bilbon irarri da 2008ko uztailean, Baster S. L. L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taiutu dau Times eta Bodoni letra moldeez. Irudiak «Smokers Art» eta «More silhouettes» liburuetatik atera izan dira.



LABAYRU IKASTEGIA
Aretxabaleta, 1-1ngoia
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa:
labayru@labayru.org
48010 BILBAO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Euzkuntza Politikarako Sabunondotza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Nociones de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

bbk²

BITAÑO plazara

Ale honetara, gugandik aspaldi aldendua dan *Bitaño* idazlearen txatal labor batzuk dakarguz. Goitzen hau erabili eban Nikolas Alzola Gerediaga salestarrak (1922-1982) euskal literaturaren zelaira libururen bategaz agertu izan danean. Bere *Atalak* guztiak, lehenengotik hirugarreneraino, eta beranduagoko *Ipuinak*, honeek be lehenengotik hirugarreneraino, *Bitaño* goitzenaz agertu zituan. Anaia salestarrak legez hartu eban izena *Anai Balentin Berriotxoa* zan, eta horren laborduraz, gaztelaniazkoaz sarri, *H.V.B.*, izenpetu zituan aldizkarietan lantxo asko. Halan *BSVAP (BAP)* aldizkarian atera zituan ugariak. Baina beste ezizen batzuek be baliatu zan hor-hemengo aldizkarietan: *Markue*, *Oxiñondoko Txoria*, *Ozerin-Jauregi*, *Arriurdin* eta beste.¹ Jaioterriko eta oso hurreko zituan toki-izenak dira darabilzan ezizenetariko batzuk: *Kortazar* eta *Oxinondo*, esaterako.

Euskal literaturaren plazara herri-jakin-tzaren eta herri-literaturaren albatetik sartu dala Bitaño esan ginei. Han-hor-hemen baturiko herri-literatura bitxiak kuadernoe-tan apuntatu, aldizkarietan bana-banaka argitaratu, eta aurrerago literatura-gai bihurtu, horixe egiten jakin dau Izurtzako iker-tzaile eta idazleak.

Euskal kulturaren barrutian askotariko gaiak erabili zituan: biografia, bibliografia, artea (pintura), literatura, herri-literatura, lexikoa... Gaztelaniaz idatzi eban batez be aldizkariotan, baina euskeraz be bai aldizka. Aldizkari lokalen artean aitagarriena, Iru-nen XIX. mendetik (1889) ateraten dan *El Bidasoa* da. Aldizkari horretan 1959-61 urte bitartean atera zituan herri-literatura gaiak liburu baten batu ebezan hil eta hainbat geroagora (1994), *Euskaraz*, *Iru-nen barrena* bilduman. Izan be, uri horretan bizi izan zan hamarkada luzeetan eta hangoxe salestarren ikastetxean jardun eban irakasten. Inguruetako hainbat lekukori, andrazko zein gizonezkori, batu eutsezan hainbat ipuin, pasadizu, kantu, koplak, errefrau eta esamolde.

Hedadura handiagoko aldizkarietan *BRSAP*, gaur *BAP* laborduraz ezagutuagoa, izan zan lankidetzarik gehien eskeini eutsan Donostiako aldizkaria. Askotariko gaiak darabilz hor, beti be labor eta zehatz. Biografia alderdiak asko erakarten eban, eta lehenagoko pertsonai ezagunen gainekoak ezeze, bere aldikoak be kronika-gai bihurtzen zituan, batean heriotzea zala atxakia, bestean meritugarritzat eukalako bere bizian.

Jakingura handikoa eta ikertzaile eroa-pentsua, inurria lakoa, izateaz ostean, gizatasun handiko gizona genduan Nikolas Alzola, izakera bigunekoa eta berbakera gozokoa. Halakoxe gomuta ona dot berarena, ezagutu eta berba egin genduan aldieta-koa.

Baina euskal literaturaren arloratza atzera bihurturik, esan daigun gerraostean Durangoaldeak euskereari emon deutsan idazle bakan izentauenetarikoa dogula berau, ugariaz gainera. Izurtzako herrian hogeiko hamarkada hasieran jaioa izanik, barrubarrutik ezagutu eban inguruko gizartea, euskera-modua eta herri-jakituria. Mundu hori da, azken baten, *Atalak* eta *Bigarren Atalak* liburuetan hilezkortu gura dauena, beraren literatura-senaz gantzatuta.

Herriko eskolan lehenengo ikaste-urratsak emon ondoren, Bilbora etorri zan gazterik, komertzio ikasketak egin asmoz. Eta zientzia ikasidun beste euskal idazle batzuek jazo dan antzera, izurtzarrak be usteaz kontrako bidetik jo eban bizitzan eta letra arlorantz hurbildu: irakaskuntza, artea, euskera, euskal literatura, herri literatura, herri-jakintza eta halako gaietara erakutsiko eban aurrerakoan gura handiagoo, saldu-erosien jakintzetara baino. Idazle honen bizi-zehaztasunak hurragotik jakin gura dituanak, jo bei Santi Onaindiaren *Euskal literatura*-ra, VI tomora.

Euskeraz idazle

Guri hemen jagokuna idazle honi buruz, euskal literaturara egin eban ekarria da; hau da, *Bitaña* legez plazaratu ebana funtsean. Hirurogeiko hamarkada hasieran hasi zan

ezagun egiten *Bitaña* ezizena euskal letretan, batez be *Egan* aldizkariaren orrietan.

1967an agertu jakun *Bitaña* izengoitiduna autormendun euskal idazleen zelaira *Atalak* izeneko bilduma bikainaz (*Kuliska Sorta*, 64. znb., Itxaropena). Aitabitxi bikainen gerizpean azaldu jakun. Eusebio Erkiagak, Lino Akesolok eta Juan San Martinek idatziriko *Itzaurre irukoitza* aurrean ebala azaldu zan liburua.

Handik luzaro barik (1971an) etorriko zan atzera taiu beretsuko beste bilduma bategaz eta argialetxe eta sorta berean: *Bigarren atalak* honen izenburua, bildumako 70gn. zenbakiduna. Handik urte batzuetara (1978) atzera barriz *Hirugarren atalak* besapean zituala², baina oraingoan Bilboko *Gero* sortan argitaraturik. Herriz auzoko eban *Kirikiñoren* kontu-liburu aleak bateatu izan ziran antzera jokatu eban izurtzarrak be. Haren *Abarrak* honen *Atalak* dira, eta haren *Bigarrego Abarrak* honen *Bigarren Atalak*. Ebaristo hil eta gero argitara ziran bigarren abarrok, baina Bitaña-k hirugarren alea aterateko astia be izan eban bizi zala. Eta urrunago joteko be astia emon eutsan: lehen bizkaieraz idatzirikoak batura ekarriz eta barriakaz hornidurik, ipuin-liburu hirukotxa kaleratu euskun hurrengorik hurrengo: *Ipuinak* (1978), *Ipuinak (II)* (1980) eta *Ipuinak (III)* (1982), ume-gaztetxoai zuzenduriko *Kimu* sailean, Mensajero argialetxearen *Gero* euskal zigiluan berean.

Landu zituan gai batzuk

- Euskal hizkuntzaren arloan, herri-hizkera eta herri-literatura gaiak ziran maiteen zituanak, eta hizkuntzaren arloan esaera

zaharrak jo zituan begiz batez be. Eta halan, Izurtza bere jaioterrian, batez be jente zaharri entzunikoak kuadernoetan idazten zituan, eta era beretsuan, luzaroetan bizi izan zan Irun eta Ondarrabi parajeen. Izurtzan baturikoak takada bitan bialdu zituan Euskaltzaindira, bere azken urteetan (1981 eta 1982an), hil aurre-aurretxoan akaburengoa.³

Salletarra izanik, Irunen igaro ebanez bere bizitzarik gehiena, hango ikastetxean irakasten, hango herri-literatura gaiak dira bere altxorrik aberatsena. *El Bidasoa* aldizkarian garandu zituen 1959tik aurrera alerik ale eta urte luzeetan hainbat kantu, kontaera... Eduki hauek, bera hil eta hainbat geroagora (1994) atera ebezan liburu bikain baten batuta, *Euskaraz, Irunen barrena* izenburupean.⁴

Historiaren eremuan, biografiak edo, hobeto esanda, zertzelada biografikoak dira sarri, idazteko hartzen dituan motiboak. Batzuetan lehenagoko idazle, artista edo osteangoen gainekoak (...). Baina sarri idazten dau berak ezagutu izan dituenen gainean, zaharrago edo beraren belaunaldiko dirala.

Onomastika dau beste gogoko gaietariko bat. Eleiz artxiboetan egotaldi luzeak egina da ikertzen, eta interes handiagoz barruan eroian bere herrikoa edo alboherriren batekoa bazan, eta bardin, bigarren etxetzat eban Irun edo inguruetakoa bazan.

Bibliografia gaiak be ugariak dira bere oharretan.

Etnografia, herri-jakintza, eta berean herri-literatura da sarriroen darabilen gaia bere txataletan. Eta honetatik emongo dau euskal literaturgintzarako pausua, batez be

ipuingintza lantzen dauenean. Herri-ipuin, ixtorio edo elezaharrak modu bitara darabilz: etnografia-metodologiaz, biltzaile gisa jokutzen dauenean. Adibide bat ipinteko, “Minazoluan bizi ziran Gillenak” esaundea, ahozko modu-moduan jaso eta transkribiduko dau, Barandiaranen metodologiari men eginik⁵.

Beste konturik da, herri tradizino hori literatura bihurtu gura dauenean, *Atalak* liburukietan jazoten dan eran. Hor etnotoetoen eta ipuin literarioen marra lausotu egiten da, batetik besterako atzera-aurrera askogaz. Idazleak berak ohartuazoten deusku sarritan, tradizinoa eta literaturgintza bereiziaz: “neuk asmaurikoa” dinosku batzuetan, “orain hemen esaten dodan moduan neure herrian entzunikoa da” dinosku beste behin, edo herri-tradizino motibo batzuen gainean berberak atondu edo taiutua dala aitzen emoten dau beste batzuetan.

Idazlea ezeze, irakurle eta ikasle handia be bazan *Bitáño*. Hori dala-ta txitean pitean dakarskuz handiko edo hemendiko aipua, halako idazleri edo halako liburutan irakurri eta buruan josiak. Buru oneko idazlea izan bera, eta bai belarriz entzunak zein begiz irakurriak, ondo jasoten daki, eta erea jator-konean behar dan lekuan isurtzen.

Estiloaz eta hizkeraz

Euskera sendo eta ziurraren jabe da izurtzarra. Berezkoa erabiltearen zale, barrutik berez dariona; apainduria eta bitxikeria gixigaz. Herritar hiltzunei, edo etxeko eta hurrekoai entzuniko esateko moduak eza-gun-ezagun dira bere idazkeran.

Bete-betea euskaldun dan hiztun-idazlea begitantzen jaku beronen lanak irakurrian: euskera osasuntsua darabil, erdal kutsuak erkindu bakoa; kanpotiko eragin gitxi erantsi jaku haren estiloari. Bizkaieraz diharduenean, forma landuak erabilita be, Izurtzako berbakera berbera entzuten gagozala dirudi; beti-betiko hiztun zahar eta on baten berbakera.

Inor bada gure idazle modernoetan herriberbetatik oparo edan dauenik, bat gure izurtzarra. Elezahar, ipuin edo pasadizu generoko idatziak diranean, lau-lau idazten daki, zeinda berbetan dabilen moduan, baina aldi berean kontakizuna maisutasunez lumaratzen dauela.

Gure antologia

Bitañok ondu zituan idatzietarik lau atal labur hautatu ditugu, ahaleginean prosa-eredu diferenteen adigarri izan daitekezanak.

—*Hiru lapurrena*, sustrai zaharreko ipuina berez (cf. *Atalak* 148) eta euskal herri-literaturan be zantzuak itxi dituana, Oiarztungo andra bati entzuna ei da, baina edozelan be idazleak berak girotua eta egokitua.

—*Mitxiñogorri*, etxe barruko gomuta zahar baten oinarritua da.

—*Aize-errota*, herri-jatorriko ipuin ezagunaren gaia harturik, idazleak berak hornidu eta berekautan girotua da.

—*Jaioterriaren ipuina*, bere kabuz sortua, prosa poetikoaren erakusgarri izan daiteke, idazlearen arte- eta poesia-sena darion natura-kantua.

Hiru lapurrena⁶

Urregorritzko diru piloak dagozala gorde-ta, esaten dabe, Izurtzako Santa Ageda ermintearen atzean. Hori, zaharrak esaten dabe, euren gurasoakandik entzunda.

Eta urregorritzko diru piloorrekin jazona hauxe ei da:

Urte asko dirala, ehundaka batzuk bai behintzat, arabar gizon batek gordeten eban Santa Agedako erminta zaharra, gero barrieztatu eta haundiagotu egin ebena. Eta gizon erminta-zaintzaile haren denporan, hiru lapur gordetan ziran Atxurkulupeko kobetan.

Hiru lapurretatik, zaharrak ziran bi, eta gaztea hirugarrena, noizbehinka erminta-zaintzailearekin berba egiten joaten zana.

Behin batean, erminta inguruan urregorritzko diruz beterik egoan zaku-zorro bat aurkitu eben lapurrak, eta erminta-zaintzaileak esan eutsen:

—*Ez eixue diru-zorro hori hartu; ostien galduko zaie danok-eta!*

Baina jaramonik egin barik, pozik eta barreka joan ziran euren kobetara, zorroa lepoan hartuta.

Lapur gaztea Santa Agedara joan zan hurrengo egunean, eta esan eutsan gizon erminta-zaintzaileari:

—*Zergaitik esan zendeuskuzun atzo, galdu eiñgo geiñiela diru zorrua erueten bageiñun? Ba ondo bizi gara irurok oiñ, da gauza ona da diru-zorro hori.*

Eta erantzun eutsan:

—*Galduko zaittue ba hirurok diru-zorro horrek, beste asko be galdu deittu te.*

Lapur gaztea Santa Agedan egoan bitar-tean, lapur zahar biek bat egin eben euren artean, esanez:

Hori, garbittu eiñ bie'yuau, da biyontza-ko gero urregorri pillo dana.

Kobara joan zanean gaztea, esan eutsien zaharrak:

—*Hi, Durengora juen, da janariye ekarri bi'ok, afari on bat eiñ bie'yuau gaur da.*

Gazteak erantzun eutsen:

—*Bai, ondo dau; juengo naz.*

Eta joan zan osteetatik, Etxetorreko zaldi baltza bidean harrapauta.

Bidean joiala, esan eban berekautan:

—*Jatekuegaz batera berenue emoten badeutsiet, diru guztiyak izengo die nietzak.*

Esan eta egin, berenoagaz ipini ebazan gauerako janariak.

Kobara joan zanean, esan eutsien zaharrak:

—*Ekarri'ok janariye?*

—*Bai, ekarri'ot.*

Eta orduan zaharrak makiladaka apurtu egin eutsien burua gazteari.

Baina eurek be ez eben hurrengo goizeko eguzkia ikusi, mundu honetan behintzat. Tripetako minekin hil ziran afal ostean.

Egunak joan eta egunak etorri, etzan agertzen lapur gaztea Santa Agedan, eta erminta-zaintzailea bera joan zan behin hatxeko kobetara.

Han aurkitu ebazan hiru lapurren hazurak, eta urregorritzako diru-zorroa inguruan.

Santa Agedara eroan, eta diru-zorro eta guzti lurperatu ebazan erminta ostean.

Eta hauxe da Hiru Lapurren histori zaharra.

1963

Mitxiñogorri⁷

Txikiak ginala gu, agertu ei zan gure etxe inguruan. Ez dakigu nondik eta nora ibilia zan etxeratu aurretik. Ez zan beste katuen antzekoa: basozalea eta igeskorra. Jate orduetan agertzen zan ezkaratz inguruan. Beti isilik eta piztien antzeko begi biziakaz.

Katugorria zan: gorri horizkea. Horregaitik imini geuntsan izena *Mitxiñogorri*. Tigrekumeen antzeko baltzunak be baeukazan, eta basakatu antza gehiago eukan, etxeko katuen bano.

Haregaz ez egoan olgetarik. Laster joaten zan mendizarratuko txaraka-arteetara, eta hango sasi-moltoetan gordeten zan. Udar-eta, egun batzuetan ez zan agertzen etxe inguruetara. Goseak hartzen ebanean bakarrik etorten zan etxe ingurura.

Katakumak be basozarratuan egiten ebazan. Halakoren batean, katakuma hazitxoak agertzen zan, eta bitartean jan bila be bai.

Gure aitagaz egin zan lagun. Inoz belaun ganera be igo eutsan gure aita onari. Aparteko biguntasuna eukan berak etxean bizi ziranantzako. Etxekoentzako bakarrik ez ezik, kanpokoentzako be bai gure aitak. Herriko tabernan baino gure etxean jende gehiago egoten zan sarritan. Danok ez daukagu halako atsegintasunik.

Gerratea etorri zan gero. Euskotar guda-riak bete eben etxea. Kainoietakoak ziran, euskaldunak gehienak; mutil onak danak guretzako. Urkiola alderuntza joaten ziran goizeko egunsentian kainoiekin eta iluntzean etorten ziran barriro etxera.

Bilbo aldera joan behar izan eban aitak auzokoekin batera. Erandio aldean egon zan

hilabete batzuetan. Etxean gelditu ginan gu, anai biok amagaz.

Aita kanpora joateagaz batera gure katagorria be nora edo nora joan zan. Mendirado, baina gehiago ez geinun ikusi.

Handik denporetara etorri zan aita, pozik barrero bere etxera, gugana; bizkor etorri be, izan be ez zan astuna eta. Gauerdiak ondo jota egongo ziran atea jo ebanean, eta anai gaztea eta biok loak ondo hartuta gengoan ohe barruan. Ama izartu zan lehenengo, eta gu be izartu ginduzan, aita maiteari besarkada eta mosu emoteko. Ez da ahaztutekoa ha eguna.

Eta gure katagorria zer? Aita etorri eta egun gitxi barru agertu zan ha be barrero etxe ingurura. Harek be bere modura emon eutsan ongietorria. Kanpoan egon zan artean ez eban bururik erakutsi gure aurrean.

Egunak joan eta egunak etorri, gure mitxinogorria be zahartu egin zan. Mendietako saguak eta pizti txikiak harrapetako lagin ez zanean, narrastuta eta erdi tatarraz, betiko etxeratu jakun. Ezagun zan gure etxea eukala beretzakotzat eta geure aita zala bere lagunik handiena; bere esportzura joan jakon azkenengo egunak emoten.

Ez eban oinaze txikia hartuko gure aitak halan ikusita, egin ebana egin behar izanean ikusi zanean. Zaku baten barruan sartuta emon eutsan azkena, sufritzen ez ikustearren, eta etxepeko ortuan lurperatu, etxearen kerizpetan.

Danoi emon euskun halako bihotzeko min bat, baina gure aita ez zan gitxien sentidu ebana.

Urte piloa joan da ordutik gaurrera. Munduan zehar makina bat gauza eta jende

ikusi eta ezagutzea tokau jaku. Gehienak ahaztu egiten dira, bai. Halan eta guzti be, txikitakoak eta gaztetakoak ez hain erre.

Haregaz katugorriagaz, gure umetako *Mitxiñogorriagaz* gogoratu naz gaur, eta honeexek lerrook idatzi dodaz. Ez da, ba, asmauriko ipuin bat; benetako katua izan zana eta benetan jazo zan gertakizuna baino.

1967

Haize-errota⁸

Getxoko haize-errotearen inguruan ei egoan harri handi bat, haretx tantai baten kerizpetan.

Eta hauxe da euren kondaira edo ipuina.

Getxoko baserri aberats bateko semerik gazteena ei zan, eta Gabon-Unai bere izena. Aspaldian kristinatuak euskaldunak, baina Ameriketako lurren barri ez ekien orduan hemengoak. Maomaar mairu-baltzen gerratera joanak ziran anairik zaharrenak, eta bakarrik gelditu zan Gabon-Unai, gazteena, gurasoekin.

Hamazortzi-hogei urtekoa zala ezagutu ei eban itxaso aldetik egunero agertzen zan neska gazte bat, urregorritzko ule eta edurrezko esku zuriduna bera.

Ondo konpondu ei ziran biak, eta baietz, ezkontzeko egin ei eben berba.

Mutilaren gurasoak jakin ebanean semearen asmaoa, esan ei eutsoen Unairi:

—*Badakizu nor dan neskato hori?*

—*Ederra eta ona da.*

—*Begiratu deutzazu oinetara?*

—*Ezdeutsadaaz, ikusi hankak.*

—*Ba begiratu eyozuz, ezkontzie aurrera eruen orduko.*

Alkar ikusi ziranean neska-mutilak, hankak erakusteko eskatu eutsan Unai neskeari.

Ezetz eta ezetz neskeak, ezetan be ez hankak erakusterik.

Derrigorrean hartzen dau orduan neskea; oinetakoak kendu erazoten deusaz eta... itsasokoen hankaduna agertu ei zan ha neska ederra.

Bihotza minez erdibituta eta penaz betarik esan ei eutsan mutilak:

—*Ezin neiteke ezkondu itsasoko hankadunakin. Uretako andria zara zu, eta legorrekoez izakerakue ni.*

Eta negarrez itota, itsasokoen hankadun neska ederrak:

—*Ez nozu gehiago ikusiko bizi zarean artean, egin dozunagaitik, baiña nire negarrezko kantua entzungo dozu itsasotik haizeak jotzen daben bakotxean.*

Eta hau esan, eta une haretan bertan harri eginga gelditu ei zan neskatoa.

Urteak joan eta urteak etorri, ardi-zaintzaileari be joan jakozan gaztearoko urteak eta bizitzakoak, inorekin be ezkondu barik.

Makina bat itsasoko haize-kantu entzun ei eban gizajoak, hainbeste maite izan ebanaren harri ondoan, eta hantxe bertan emon eban azken ordua, betiko begiak itxitea, negu gogor bateko edurrak agertu ziranean.

Hurrengo udabarrian erne ei zan tantai handia egingo zanaren landara barria; Unai hil zan leku haretan bertan, harriaren ondoan.

Eta urte askotan entzun ei ziran han paraje haretan neska-mutil bien haize-txistuzko kantuak.

Urteak eta gizaldiak geroago, hari harri handiari be etorri ei jakon bere azken ordua, haize-erota barria egin ebenean.

Harribizi harekin egin ei eben haize-erota barria. Eta orduan eta geroago urte askotan be hainbat bider entzuten ei ziran itsas kantuak haize-errotearen hegal-aspaen zaratakin batera.

Hau da Getxoko Aizerrotako neska-mutilen ipuina, eta baleiteke egunen batean hargin ederzaleren batek harri-tailu polit batean barrero berbiztutea, hurrengo gogorantzarako.

1968

Jaioterriaren ipuina⁹

Neure jaioterriko mendi eta zelaietatik zehar ibili naz, galdezka ta itaunka. Etzerik etxe. Mendirik mendi. Ibarrik ibar. Edurbi-deetatik neguan. Baso tantaieen kerizpeetatik udan. Udabarriaren jaiotza-egunetan ibili naz. Udagoienaren agolinar be bai. Ibaian eta erreka txikietan. Itsaso ertzean. Hondartza bigunean.

Eleiza ta ermintetan. Kanposantuan. Pelotajoko-lekuetan.

Galdezka mendi eta ibarretako gizonai. Ardizaintzaileai. Baserritarrai. Olagizonai. Giltzape barruan dagozanai. Ikasidunai. Bertsolari eta txistulariai. Ezpatadantzariari eta argindarrezko kitarra-jotzaileai.

Abere eta kokoai. Piztia. Txoriai. Arrainai.

Eguzkiari egunez. Iretargiari eta izarrai gauez.

Zugatz zaharrai eta landara barriai. Bedar txikiak.

Lurrari. Harriai. Euriari. Edurrari. Lainoai. Iturri gorriko ur hotzari. Haizearen txis-soinuari.

Abade, fraide eta monjen eleiz kantai. Sinistedunen otoitzari. Zalantzan dabiltzanen gogoste larriari. Langileen izerdiari. Kantarien kantuai. Gogoak ilunduta bizi diranen kerizpea. Itxaropenean sinistuten dabenen arnaseari.

Beste bazter askotatik be ibili naz. Ez dot uste baztarlekurik itxi dodanik ikusi eta galdetu barik.

Ipuin bat egiten hasi naz, etxera etorri nazanean. Euskal Herriaren ipuina. Ez naz ausartu Ama Lurraren poema-olerkia egiten. Baina bildur naz, ez dakit amaitu ahal izango ete dodan azkeneraino dan-dana. Hasi behintzat hasi naz ipuin hau egiten. Ikusiko dogu noz amaituko dodan, inoz amaitzekoa bada.

Jaioterriaren arimeak beti hegan egiten daberen orduan be, beragaz batera joatea gura neuke, orain hasi dodan ipuinagaz.

(1967)

OHARRAK

¹ Juan San Martinek garutzen deuskuz eurok behin banan *Atalak* liburuari eginiko sarreratxoan, "Atalari ataltxo bat" deritxonean (27). Aitatzen dira Jon Bilbao-ren *Bibliografia*-n, Santi Onaindiaren *Euskal Literatura*-n eta beste leku batzuetan be.

² Egileak liburu-sarreran 1977ko zemendiaren data dakar, liburu egintzat edo amaitutzat erakutsiaz, baina argitaratu hurrengo urtean egin zan Mensajero argitaletxearen *Gero* euskerazko bilduman.

³ "Esaerak-eta, Izurtzaldeko euskaran" aurkeztu eban Euskaltzaindiko batzar baten eta *Euskera*-n argitaratu (XXVI, 1981, 845-858). Ehun esaera guztira. Eta bigarren txortea, 101-140 bitartekoa, Piarres Lafitte-n omenez atera zan *Iker*-en atera zan (1983, *Iker*-2, 101-106).

⁴ *Euskaraz Irunen barrena*. Irun, Luma, 1994, 155. orr.

⁵ Cf. *BAP*, 1960, 480.

⁶ Bitaño (1967): *Atalak*, 43-45.

⁷ Bitaño (1972): *Bigarren atalak*, 23-25.

⁸ Bitaño (1972): *Bigarren atalak*, 31-33.

⁹ Bitaño (1972): *Bigarren atalak*, 20-21.

Poemak

AMA HONDARTZAN

(Picassoren *Deux femmes à la plage* pinturari begira)

Ama, behar zaitut hondartzan ikusi lasterka,
magia egiten denborarekin.
Eta ni pijama hutsean errepidetik zuri so,
olatuen merengea begi-ninietan.

Film hartako oreintxo nauzu,
zuretako eguzki-betaurreko bila merkatu txikian.
Hegazkin batek, zeruan, urrun daramatza
evax, belcor eta margaret astor kargamentuak.

Ama, behar zaitut barreka ikusi hondartzan,
eskua eskuan,
eguerdi gordinean.



GUTUNA

2008, martxoa, asteazkena, atzo

Paparrean usteltzen ari zaidan orbel horri,
esan nahi dizut,
zintzoki:

Musu bat soilik nahi nuen.
Ez zuela inporta argiaren tonuak (ez eta erabilia zen ala ez),
ibaiak udaberria ote zekarren korrokadaka
trikuek hitz berriak ikasten ote zituzten errepide hartan,
zehazki.

Zure ahoari antzemango nion nik
—menta-poleoaren keruan—
nik orduantxe behar nuen zera: zure odolaren murmurio bat,
niretzakoa espreski.

Eman bazenit, eman banizu
aparkaleku hartan
hil egingo zintuen nire musuak, eta berpiztu gero,
supituki.

Musurik ez, ordea, urtzetik ez.
Haren tokian, irribarre bat, dena more bihurtuz,
agur-hitz batzuk, ezpainetan bizkor kokatuak,
exajeratuki.

Jakin ezazu, bada,
itzuliko ez den lipar konparaezin hartan
baztertuko zintudala betiko
(Rodin hain tematia ez balitz eta Angel González ezordukoa).

Ondo izan, laster arte, gorantziak,
adeitsuki.

Laute-gauak

Akil erregea alargun gelditu zenetik negar eta negar aritzen zen. Hilabeteak eta hilabeteak zermatzen larrialdi hartatik irten ezinik eta zerbitzariak, berriz, akiturik eta goibel zeuden, oharturik nagusiak aspalditik ez zuela eman urrats bat osorik.

Haren negar luzeak atertu nahirik, zazpi seme-alabak hurbildu zitzaizkion eta haien agerpena haragiztatuagoa izan zedin hitzari heldzea erabaki zuten, ipuin bana kontatuz, Akilek txikitatik kikaretatik ateratako iratxoei buruzko ipuinak kontatzen zizkien bezalaxe.

Hala, Yahanek, muezinak alminarrean bezalako jarrera harturik, “Haragizko mendia” zeritzon ipuinarekin aitaren adiera erakarri nahi izan zuen:

«Yussefi mundu honetan bizkar bat eraman beharra egokitu zitzaion. Baina nahiz eta konkorra izan, hori berarentzat ez zen inolako oztopo. Aitzitik, gogotik zaintzen zuen, zapata garbitzaileak zapata bezala, belusezko oihal batez distira atereaz, bizardunak bizarra bezala, eskua behin eta berriro eta leun igaroz edota lorezainak lorea bezala, sarri ongarrituz eta ureztatuz.

»Baina gizarteraterakoan, uste eta jarrerok beselakotzen ziren, konkorra Yussefentzat bedeinkatutako mendia, bedeinkatutako bularra baldin bazen, eztizko duna eta buruko baldin bazen, besteei tximinia kedartsu begietaritzen zitzaien, txondor, boi-lur ustel.

»Eta hala jokutzen zuten. Batzuetan, elefante, krokodilo eta suge batzuekin batera gamelu bat zermatelarik, zartailuaren eraginez lau hanketan jarrarazten zuten Yussef, beste batzuetan, ahuntz gorotzak eta harriak bortitz jaurtikitzen zizkieten.

»Lur-eraso haietako batetik ihesi zihoala, ederto apaindutako zaldi batzuk begiztatu zituen eta zaldien inguruan hainbat gizon anbar, intsentsu eta musketa lurrinak zerizkien ontziekin jauregi baten sarreran. Itxura guztien arabera, norbait jagoten ari ziren.

»Halako batean, Yussefek errege ikusi zuen, ezkerreko hankatik herren zebilena. Jauregiko sarreraren eskailera mailak zenbatu eta erregeri keinu mingotsa marraztu zitzaion aurpegian. Horretaz oharturik, Yussef bizkarra hogeit aldiz apaldurik hurreratu zitzaion, erregek ezkerreko hanka konkorraren gainean jar zezan. Horrela lortu zuen erregek jauregirainoko bidea egitea.

»Konkor hura baino gauza erabilgarriagorik eta lauagorik ez zuela behin ere aurkitu eta erregek Yussefi otarre bete piku melatu oparitu zion, egindakoa eskertuz. Orduan bizitzan dastatu zituen pikurik melatuenak jan zituen Yussefen konkorrak».

Omar-ek, masailetan adarga eta gumia bana marrazturik zeukanak, “Hiru begiduna” kontakizuna agertu zion, *nargile*-ari bafada batzuk ateratakoan:

«Ezagutzen zutenek jakin bazekiten Sinabaden irakurzaletasunak ez zuela mugarik, orduak eta orduak ematen baitzituen etxeko bibliotekan denetarikoliburuen artean, basozainak zuhaitzetik zuhaitzera bezala. Batez ere, Ibrahim eta Nasser osabek zekiten hori, etxeko laugarren eta azken solairuraino joan behar izaten baitzuten maiz Sinabad ganbaratik ateratzera, zur landuzko kutxa batek idazluma bat ateratzen den bezala. Baina behin bere bila ez joatea, bere kabuz egon zedin erabaki zuten. Gau eta egun zelatatu zuten lau astetan zehar.

»Bai, hantxe zegoen Sinabad dibanean eserita, baina begirik bildu gabe orein larruz koadernatutako liburu bati itsatsita. Bere izena hiru aldiz ahoskatu eta jaramonik egiten ez ziela jabeturik, Sinabaden burua altzaraztea erabaki zuten. Ozta-ozta altxatu eta Sinabad sinestunak hiru begi zeuzkala jakin zuten, bi ohiko lekuetan eta beste handi bat kopeta erdian.

»Han utzi zuten Sinabad hiru begiduna, Jainkoa ez ikustearren, Mahoma bezalaxe, aurpegia belo batez estalita, sura batzuk irakurri eta Ala-ren laurogeita hemeretzi izen sakratuak behin eta berriro errepikatzen ari zelarik».

Mubarak-ek, hitz egiterakoan, alminaretik hitz egiten ari zela zirudienak, “Urrezko atea” ipuinarekin eman zion segida Omar-en ipuinari:

«Goiza gatza bezain zuria, eguerdia azafraia bezain horimina eta gaua galipota baino beltzagoa zen egun batean Sauí sultanak eskualdeko jekeak, bisirrak eta bestelako dignatarioak eta jauregiko guardia zein ofizialak elkartu zituen areto nagusian eta baita zenbait erlijio-ministro ere. Zaindari batek bainugelatik azpil bat ekarri, urez begitartea busti eta freskatzen zion, beste bat kristalezko flaskotik lurrina isurtzen aritzen zen eta hirugarren zaindariai treskatik olio tantak sabel gainean bota eta masajeak ematen ziharduen. Sauí sultana hil zorian zegoen bere ohe-tronuan.

»Ingurura begiratu eta ohiko jarrerak antzeman zituen: belarriak erne eta begiak borobil eta horrek azkenurreneko ordu hartan hagitz abaildu zuen, hagitz. Ozta-ozta zerion ahotsetik hauxe galdetzeko kemena izan zuen:

»—Non zegok Karim?

»Begiko eunukoa zuen Karim, adigalkor samarra, poeta samarra.

»—Lorategian, eltxo-sarean, kaparrak eta pista-txoak jaten eta horrela ez dagoenean musika irakurtzen —erantzun zion zaindariatako batek.

»Barre egin zuten sultanak, barre amultsuak, eta barre egin zuten hara bildutako guztiek, iseka gorritz.

»—Esaiok bada etortzeko —esan zuen azken agindua izango zuen hartan.

»Mantso-mantso zetorrela, agertu zitzaion Karim, beti bezala adigalkor samarra, poeta samarra.

»—Tori hau, hiretzat —eta tunikaren golkotik txori bat atera izan bailuan atera zuen urrezko atearen giltza.

»Ingurukoek bekaizkeriaz begiratu zioten Karimi eta Karimek haiei axolagabekeria. Harrezkero, behin baino gehiagotan saiatu ziren Karimi urrezko atearen giltza lapurtzen, behin baino gehiagotan urrezko atea bortxatzen, baina ezin, bateko, Karimek urrezko atearen giltza ezkerreko zapataren mihiaren azpian gordetzen zuelako eta, besteko, urrezko atea arina eta soila zelako eta ez bortxatze-koa.

»Behin, ilunabarrean Karim urrezko ateraino joan, zabaldu eta preludeo bat eta oda bat atera zituen, lautearekin jotzekoak zirenak».

Ipuinon ondoren eta, batez ere, azken ipuin honen amaieragatik pozik zeudenak egongelako arabeskoak eta hizki kufikoak ziren, dantzatzen hasi baitziren silueta armoniatsu eta zehaztugabean galduz, eta baita alfonbretako ataurikeak ere,

hazteari eta ugaltzeari ekin baitzioten. Akil, ordea, hobetoxeago egon arren, ez baitzerizkion lehenengo negar-anpulu haiek, noizbehinka negar txikiak egiten zituen zotinekin tartekatuak. Nahiz eta hiri bat barlasai baten gainean irudikatzen zuen egongelako ezker aldeko ajimezari begiratu, begitarte goibela ez zitzaion aldatzen.

—Etor zaitze Sulayman —esan zion laguntzaile bati—. Zerbait edan beharra daukat.

Batetik, Akilen nahia bete nahirik, eta, bestetik, beste gau bat negarretan igarotzea baino gauza ankerragorik ez dagoela iritzirik, zilarrezko katilu batean menda hurbildu zion. Pixkanaka-pixkanaka zurrupatu, dastatu eta gozo zegoela esan zion, baina besterik ez.

Laguntzaileak nondik jo ez zekiela, arasara hurbildu eta arreta guztiak alboraturik, edozein ontzi hartzea erabaki zuen, buztinezko pitxer arrunt bat, adibidez, eta ezti-urez bete zuen. Itxaropen handirik gabe pitxerra jarri zion. Pitxerretik ezti-ura edan bezain laster, Akil zeharo aldatu zen, negarrari utzi eta alai zegoen, irribarretsu eta pitxerraren ertzak behin eta berriro laztandu eta musukatzen zituen, Hafsa emazte zenaren ezpainak zirelakoan.

Akilen gogo-aldarte hain gorabeheratsua benetan zein egoeratan eta zein fasetan zegoen jakin nahian, Sulayman hurbildu zitzaion eta ahots ezin amultsuagoaz galdetu zion:

—Zer moduz zaude Akil?

—Seme-alaben ipuinekin eta buztinezko pitxer honen ertzek ekarri didaten amets iragankor baina goxo honekin hobetoxeago, baina oraindik ... —erantzun zion bekainak altxatu eta arku zalantzarokor bihurtuz. Eta geldialdi baten ostean, berriro heldu zion hitzari—. Eta lautearen aipua ere oso gogokoa izan dut, izan ere, gaztaroan Hafsa ezagutu nuen garaian, lautea jotzen nuelako eta ikustazu nire zia —eta hau esatearekin batera, eri pototsaren azkazal luze eta gogortua erakutsi zion—. Ikustazu

honako hau —eta jarraian sakeletik diapasoi bat atera zuen.

Yamilkak, gau amatista bezalako beloa zeramanak, “Zauri larria” ipuinarekin eman zion jarraipena Mubarak-ek kontatutakoari:

«Ez zen harrikadarik izan, ezta zaldi ostikorik ere, baina laster batean eraman behar izan zuten erietxera. Han asteak igaro zituen Assef mutiko herabeak senetik irtenda, begiak zuri, ahoa zabalik eta esku ahurrak gora jarrita. Hainbat sendagilek denetariko probak egin zizkieten gaitza antzemateko, baina zantzurik ez.

»Sentsazioak erne jartze aldera, sandalo zur puska bat eta astaizpilikuz eginiko sorta bat gerturatu zizkieten, baina Assefen sudur zuloek basamortu latzean bi puntu beltz izaten jarraitzen zuten. Hosto baten gainean intxaur muskatuz hautseztatutako kremazko hostopilak zerbitzatu zizkieten, baina Assefen ezpainak larruzko bi zati lehor ziren. Gasa eta satena eskaintzerakoan ere Assefen ermamiak ez zuten baiezkorik egiten. Lorategiz eginiko alfonbrak begietaratu zizkieten, baina Assefen begiak hutsik. Hatsa eman zioten txirula baten bidez, baina, antza denez, txirulako notak belarriratu baino lehen, galdu ziren hor nonbait.

»Erietzeko gau horietariko batean Assefek erietxera etorri aurreko eszena gogoratu zuen: auzoan zegoen adin bereko beste mutikoekin batera hizketaldi lasaian, baina halako batean gazte batzuek datil hezurak jaurtiki zizkieten, haietariko batek Assefi kopetan jo ziolarik, hazbeteko zauria eginez. Arrasto xume bat, odol tantarik ere eragin ez ziona, ezta azkurarik ñimiñoena ere.

»Jazoera honen ostean, Assefek datilaren hezura eta bihotza bereganatu zituen amets baten bitartez. Amets horretan Assefek begiak datil hezurrezkoak dauzka eta datil hezurren azalezkoak azkazalak. Amets egindakoan, ezer gertatu ez balitz bezala ohetik altxatu eta erietxetik irteten da».

Hassanek, kaftanez jantzita zegoenak, simunaren beraren oldarraz honela hasi zuen “Leihoaren irribarrea” izenburuko ipuina:

«Berrogei urte bete arte, Alik hainbat ofiziotan jardun zuen. Meskita baten begirale ibili zen eta bazekien meskitako kupula fruitu umotua dela eta ferra arku batean zeru osoa sar daitekeela. Sukaldari izan zeneko garaietatik lurrin gozoak barneratuak zeuzkan, enborrak erretxina nola.

»Baina berrogeita bat urterekin Ali Saad nababaren alfanje eramaile izan zen. Bizitza aldi hartan liskar txikietan sartuta ibili zen, alfanjea beti lagun izan zuelarik.

»Behin legeak hala agintzen zuelako, gizon bati bihotza erauzi behar ziola esan zioten, baina horri gehiegizkoa iritzirik, leihorako bidea hartu zuen.

»Saad nababaren egoitzara hurbiltzen direnak beti leiho batera begira geratzen dira. Bertan alfanje bat dago, zorrotik atera berria, distiratsua eta irribarrez, ilargi erdia bailitzan, traidorearen besarkada bailitzan, arrisku estimagarriaren aierua bailitzan. Horrela urteak eta urteak daramatza».

Aminak, lapis lazuli koloreko tunika zeramanak, “Laute-hariak” deitutako kontakizunari ekin zion:

«Nur kalifak alaba bakarra zeukan: Jadiya. Goiz batean ez zen esnatu. Lo zirauen, bizirik, baina lo. Egoera haren aurrean tristurarekin batera maitasuna bizkortu zitzairen Jadiyaren gurasoei eta, horrela, denetariko jantziz, apaingarriz eta jakiz bete zuten gela.

»Muselinazko zapiak eta Fezeko tindatzaileen azokatik denetariko jantzi koloreztatuak ekarri zituzten; Topkapiko jauregiaren Tulipen lorategitik tuliparik usaintsuenak eta Bagdadeko atetik egun onik eta gabonik ozenenak; gau mahai gaineko azpil batean almendrak edukitzen zituen eta baita hainbat pitxer bete muztio, olio lurrintsuzko lanparatxo bat alboan zegoela.

»Jende asko bertaratu zitzaion loaldi hartatik atera nahian. Hiru egun barru hilabete beteko zela

eta egoera hark atzera bueltarik ez zeukala jabeturik, Jadiyaren aita-amak, larriduraren larriduraz armiarma sare bihurtu arteko makramezko begiradak gelditu zitzaizkienak, gauza batez ohartu ziren. Data hura meskitetan ikuzketak eta erdaikuntza-zeremonia erlijiosoak ospatzen ziren eguna zen eta, beraz, egun hartako ilunabarrek ohi baino gehixegoko odol tantak zeuzkaten eta ohi baino ureztatuago zeuden. Zerura begiratzea erabaki zuten, seinaleren baten bila, baina ez zuten ezer ikusi. Beti bezala jarraitu beharra zegoela iritzirik, alaba apain-apain zeukaten eta katu zein uso urrumak zerizkien eskuez laztantzen zuten.

»Jadiya ikustera joaten zirenen artean Yazid mutiko gaztea zegoen, Jadiyaz maitemindu zena. Etxera heldu bezain laster, armairuan aspalditik gordetako lautea atera zuen. Jadiya hainbeste maite zuen eta lauteari barruan zeukanetik hainbeste atera nahi izan zion, ezen hogeitaz egunez goizetik gauera arte txiki-txiki bihurtuta lautearen barnean egon baitzen saihe-tsak bezalako oholtxoetan zirrikitu batetik bestera eta harietan pentagrama batenak bailiran espaloi batetik bestera ibiltzen, harik eta doinurik gozoena aurkitu arte. Txiki eta apala izan ondoren, musikari handi izan zenean, Jadiyarengana joan zen.

»Jotzen hasi eta berehala esnatu zen Jadiya “horrelako doinurik bako bizitza baino hobe lo egotea” esanez. Lore bat berpizteak sortzen duen harri-dura berberaz hartu zuten ingurukoek Jadiyaren esnatzea».

Poz haren zergatiari jarraitu nahian, Barkyaruk-ek, Akilen zazpigarren eta azken semeak eta feza zeramanak, “Ardoaren Ate Sendoa” ipuina kontatu zuen:

«Schahriar harginak lanerako arropa eta sandaliak (bi mihi lehor basamortuan, bi zigilu bigun lur bustiaren gainean) zeramatzala eta mandoa zein anekak bidaide, marmol lorrean zebilen. Horrela, bazeramatzan egunero-egunero zazpiren bat urte, meategiko marmolik bikainenak garraiatzen.

»Izan ere, Schahriar-ek ez zuen minareterik nahi, baizik-eta gaueko orenik garaienean ilargia eta eguneko orenik garaienean eguzkia sostengatu-ko zituen bi zutabez eta gau ilunetako izarrak bere gain hartuko zituen arku batez osatutako atea.

»Lana bukatu eta Ibn Faray-en *Lorategiak* deritzon antologiatik zenbait distiko errezitatu zituen lautearen bitartez. Handik lasterrera, euria ari zuen. Ardoaren Ate Sendoaren sabaiari zerizkion ardozko euri tanta eztiak dastatu ahal izan zituen Schahriar-ek».

Ezpain biziak zeuzkan ezti-ur pitxerrak opa ziezaiokeen zorionaldia zeharo gauzatuta ikusi zuen Akilek azken ipuin hau entzundakoan. Orain arteko begirada galdua, arku alikatatueta eta ur jokoetan galdua lur gainean jarri eta jazoerak auresentitzera-koan egiten zuen bezala, golkoari begira jarri zen. Gero, zerbait harrigarriren atarian zegoelakoan,

Sulaymani arrosa-ur ihinztigailua eskatu zion bizarra eta jantziak lurrindatzeko. Eta tronutik altxatu eta “Hafsaren ahotsa, Hafsaren ahotsa” esaten hasi zen, barne zirrara ezkutatu ezinik lauterantz zihola. Eta apaingarri guztiak ahazturik, ahots hari gorputza ere bazegokiola egiaztatu ahal izan zuen lautearen silueta mugitzen hasi zenean. Ez zegoen dekorazio kaligrafikorik, errubrikarik ezta konbinaketa geometrikorik ere zura lur bihurtutako lautearen silueta haragiztatu hura bezain iradokor mugitzen zenik.

Akilek bete-betean besarkatu zuen lautea, hainbesteko kemenaz, ezen bere gorputzarekin eta espi-rituarekin bat egin baitzuen. Ordutik aurrera, enbor bereko bi zuhaitzen gisara ibili ziren. Handik hamar urtera Akil zaharraren zaharraz sitsak janda hil zenean, lautearekin ehortzi zuten.



Enzun eguizu cer barri dogun: Gabon Kantearen aurkezpena

Oskorri kantari talde ezagunari –zehazago esanda, Natxo de Felipe kantari bikainari– zor deusagu gabon-kanta hau ezagutu izana. Faksimilez eskeintzen dogun argazkiak Espainiako Biblioteka Nazionalaren zigilua daroa, eta zurkuluren baten aldendu ez bada, oker handi barik han egon behar leuke jatorrizko paperezko izkribuak.

Hedabideen bidez jakin dogu beronen barri. *Deia* egunkarian irakurri genduan batetik (2008-06-07, 80. or.) eta *Bizkaie* aldizkari digitalean (2008-06-10) bestetik. Bigarren honek argazkiaren faksimil erreproduktzioa be baekarren. Bilboko rastroa izan da berau topau daben lekua.

Solo para La Noche Buena = 2

Capla.

1. Enzun eguizu cer barri dogun, egon zaitzen contuban: Maginhiacac certadu deust puetre onetan ber nubon. *Enzun*

2. Ezer edebat azguitu zela, dio, oranche Ceuban: Mite baxi or izargo diez oradu oneste Munduban. *Enzun*

3. Fauso dabon pase baguesis gure echean, fastina, eta ezar idaxniton onestacion la gura. *Enzun*

4. Enchava sei as efiri ziden terran ardilat: Neala pasitu naban: andiegoa isan balish o Jala. *Enzun*

5. Texaina bea pas seteei calera uze gasvian, iton te baten azguitu naban azquen azquero o seia. *Enzun*

6. Papi duracion itea ta eadi isu vocadu gasvian, bigaza, ziran azguitu toque bagere esta a azion. *Enzun*

7. Eru raxaso ot azal bates, sacateaguta balian, Eri lapia zabal bates bazabla pasuete ne u zan. *Enzun*

8. Fantañatati bazablan dezan, quise baguesis imina: Pasaquei rogar, raji toñada; pires zehilan a... quina. *Enzun*

9. Kapazaco opui galant bi efiri ziden auxetie: nala rizean cecheasie, echan roñada a guzie. *Enzun*

10. Mima garti zambat Jaca nor este requen buelta: Nae girica atoa beui quazi danac con tuta. *Enzun*

Enzunillo.

Enzunillo, gura Azu En m: talpea oras dauca, batesa orampen

Argazki hau da Natxo de Felipek Rastroan erosiko orijinala. Berak Xabier Kalzakortari emon eta hari esker argitaratzen dogu.

[Gabon Kanta]¹¹
(Jatorrizko bertsoia)

Solo para la Noche Buena

1.
Enzun eguizu cer barri dogun,
egon zaitezen contuban.
Machinfracac contadu deust
puntu onetan tornuban.

Tras &

2.
Izar ederbat argitu dala,
dio, oranche Ceruban.
Mila barri on izango dira
ordu oneric Munduban.

Tras &

3.
Gaurco Gabean pare bagueric
gure echean fortuna;
esta erras idaraitea
ene afarien laguna.¹²

Tras &

4.
Inchaur salsaz efini ziden
terrain andi bat. Verala
garvitu neban; andiagoo
izan balisa ojala.¹³

Tras &

5.
Terraina bera azas veteric,
colores urre garvia;
istante baten *garvitu* neban¹⁴
asquen asquengo orria.

Tras &

[Gabon Kanta]
(Bertsio gaurkotua)

Solo para la Noche Buena

1.
Enzun egizu zer barri dogun,
egon zaitezen kontuban.
Matxinfracak kontadu deust
puntu onetan tornuban.

Tras &

2.
Izar eder bat argitu dala,
dio, orantxe Zeruban.
Mila barri on izango dira
ordu onerik Munduban.

Tras &

3.
Gaurco Gabean pare bagerik
gure etxean fortuna;
ezta erraz idaraitea
ene afarien laguna.¹⁶

Tras &

4.
Intxaur salsaz efini ziden
terrain andi bat. Berala
garbitu neban; andiagoo
izan balitza ojala.

Tras &

5.
Terraina bera azaz beterik,
kolorez urre garbia;
istante baten *garbitu* neban
azken azkenko orria.

Tras &

6.
Prigidurican libra ta erdi,
iru vocadu garvian
tripara ziran uqitu bague
bapere estaarrian.

Tras &

7.
Iru surreco otazal bates
Sacatrapuba balisan,
esti lapico zabal bateri
barruba garuitu neuzan.

Tras &

8.
Gastañetati barruban dacart,
guisur bagueric, imina;
verrogei sagar, saspi tostada,
prisaz zebilen aguina.

Tras &

9.
Nafarroaco ogui galant bi
efini ziden aurretik;
nola sirean errebarriac,
etsan sobradu apurric.¹⁵

Tras &

10.
Mama gosoti zeimbat jausi zan
eztet seguru buruba.
Viar goiseco atera vegui
egarri danac contuba.

Tras &

Estrivillo

Trisquilis tras
gaur degu Gava on
tripea ondo daucat,
bestea orcompon.

6.
Prijidurikan libra ta erdi,
iru bokadu garbian
tripara ziran, ukitu bage
bapere eztaarrian.

Tras &

7.
Iru surreko otazal batez,
sakatrapuba balitzan,
ezti lapiko zabal bateri
barruba garbitu neutsan.

Tras &

8.
Gaztainetati barruban dakart,
gizur bagerik, imina;
berrogei sagar, zazpi tostada,
prisaz zebilen agina.

Tras &

9.
Nafarroako ogi galant bi
efini ziden aurretik;
nola zirean errebarriak,
etzan sobradu apurrik.

Tras &

10.
Mama gozoti zeimbat jausi zan
eztet seguru buruba.
Biar goiseko atera begi
egarri danak kontuba.

Tras &

Estrivillo

Triskilis tras
gaur degu Gaba on,
tripea ondo daukat,
bestea orkonpon.

1. Noizkoa ete?

Oskorri taldekoek 1750ekoa izan daitekelakoa iragarten eben jente aurreko aurkezpenean.

Gure lankide Jabier Kalzakortak paleografian –edo hain urrun joan barik grafia zaharrea– adituak diranei eretxia eskatu ondoren, 1730 baino lehenagokoa izan behar ete dauen dino.

Edozein modutan be, XVIII. mendearen lehen erdikotzat jo daiteke. Konposizioko hizkera-morfologiak ez deusku askorik laguntzen data aurreratzen. Testua irakurrian, nik neuk ez deusat zahartasun aztarren gehiegi erreparatzen. Hizkeraren aldetik, ez dirudi mende horren erdialdeko testuak baino zaharragoa dala frogatuko leuken marka zaharrik; baina kontrakoa frogatzeko be ez dago daturik. Goizetikoa izan daiteke konposizinoa, gramatika-ezaugarri arrunt edo ezagun samarrak izanagaitik.

2. Nondikoa ote?

Gipuzkoako bizkaieraren eta sartaldeko gipuzkeraren ezaugarriak agiri ditu nahastean dokumentuak. Bat-batean jatorkuzan sorburu-guneak Bergara eta Azkoitia dira, dataz apurren bat atzera jo ezker: Izan be, XVIII. mendearen bigarren erdian, Azkoitian eregi zan Euskalerriaren Adiskideen Batzarrea, Insausti jauregian egoitza ebana, eta harik gitxira, Bergaran Zalduntxoan Errege Mintegia. Uri biok alkarren auzo dira, eta euskalki bi bereziren kokagune: bata ekialde-bizkaieraren barrukoa, bestea sartalde-gipuzkerarena.

Xabier Maria Munibek, Peñafloidako Konteak eta Azkoitiko Zalduntxoek eregi

eben Batzarrearen buru zanak, 1762an inprimatuazo zituan bere *Gavon Sariac*, Azkoitiko eleiza nagusian urte horretako Gabon egunez kantatuak izan eitezan. Handik urte bira (1764) *El borracho burlado* antzerki-lana, Bergarako Jai Nagusietan antzestua izateko.

Baina itxurea danez, horreen aurretikoa dogu orain aurkeztera gatozan gabon-kanta hau. Eta Muniberen izkribuakaz konparatuz, nekez esan leiteke harenak izan leitekezanik, sartalde gipuzkera garbian idatzirik dagoalako, bizkaiera ikutu batzuk gorabehera. Ezta Pedro Barrutia Mondragoeko eskribuarenak be, haren *Acto para la Nochebuena* bizkaiera askoz garbiagoa dalako eta hizkera bere osoan zahar kutsu askoz gehiagokoa.

3. Egilea nor zatekean aztarrenik ez dogu haren be. Eskolatua izan behar ezinbestean, eta eleizgizona again, baina gaiari ohartuz, bardin legegizon, kronikari edo beste luma-ofizioen batekoa. Gizon letratu edozelan be, musika arloan ikasia eta euskera onaren jabe. Gipuzkoako bizkaiera eremukoa edota gipuzkera-bizkaierak biak ekizan mugako giputza, euskalki bien alkar eragin eta bateratzeak etenbakoak baitira.

4. Konposizinoa

Gabon-kanta hau laburra da: 10 lauko neurri luzeko (10 x 8) eta leloa lauko laburrekoa (7 x 6 silabako izan gurakoa), horixe da guztira. Pentagrama bigaz lagundurik dator testua: laukoei jagokena goian, eta leloarena behean.

Faksimilean ohartu geintezkezanez, folio

antzeko orri bakarrean eta alde batetik idatzirik dago eduki osoa, zabaletara idatzirik.

“Solo para la Noche Buena” dau izenburua. Konposizino bakuna da, beraz, eta ez XVIII. eta XIX. mendeetan eleizan kantatzeko onduak diran beste asko legez, atal gehiagoz osotua. Laukook be Gabon egunez kantatzeko onduak dira, baina jai girokoak dira, “kopla jostailuak” edo jostagarriak, edo “burlescas” gaztelania-adjektiboa erabilirik. Ez dauka konposizino honek atal graberik, Jesusen jaiotza erlijinoaren edo fedearen aldetik darabilenik. Gabon eguneko alderdi jostagarria darabil soilik: ospakizunari, festari jagokona. Geroagoko gabon-kantarik gehienetan konposizinoaren azken atala izan ohi da hori, baina ez guztietan. Badira honen itxurako beste batzuk be.

Kopla jostagarriak dira: gabon gaueko jate-edateak ditue gai eta ardatz, ez Jesus umearen jaiotza.

Kantatzeko eginak dira; Gabon gaua jai giroan ospatzeko, jan-edan ugaria, edo gehiegia, bitarteko dala.

5. Hizkera-ezaugarri batzuk

5.1. Lexikoaz

Agin (*aguina* 8d) darabil eta ez *ortz*, bizkaierarako joera garbia.

Aurretik (*efini ziden aurretik* 9b) inesibo balioaz erabilia da hemen, bizkaiera zahar-klasikoetan be ezaguna dan joera.¹

Barri hitza (*zer barri* 1a, *Mila barri on* 2c), testuan izen kategoriaz erabilia, ‘nueva, noticia’, sartaldeko aldaera, nahiz gipuzkera sartaldekoan be sartzen dana.

Bapere (6d) bizkaiera-aldaera garbia.

Efini (4a, 9b) aditz-partizipio era zaharra ezaguna da, Bizkaiaz kanpo, bai Deba ibarrean, bai sartalde-gipuzkeran. Barrutia aramioarrak halan darabil; baita Arakistainek be.²

Berala (4b) adb. era eta bizkaiera zaharreko *beralan* kideak dira, sartaldera joten dabenak bata eta bestea.

Eztaarri (*estaarrian* 6d) hitzean aita-garria da *aa* bitua, bertso-neurria jagoteko eta kanturako be bertsogileari eraz jator-kona.

Fraka aldaera zaharra dogu *Matxinfraka* goitzen barruan, sartalde-euskeran lekutasun zaharrak dituen. Kontu jakina da Markinaldeko bizkaitar klasikoek *p*-ren alde jokatu ebela holako hitzetan, *f*- baztertuaz, nahiz *f*- hori erabilteari be guztiz itxi ez.³ Kontsonante bera dogu *efini* aditzean edo *Nafarroaco* (9c) toki-izenean ere. Deba harroko berbaeran, Bizkaiko eskualde batzuetan lez, *fraka* erabilia da *praka* aldaere-agaz batera.⁴

Gizur (*guisur bagueric* 8b) Deba ibararren erdi eta goienean zabal dabilen aldaera da; besteak beste Bergaran eta Oinatin.

Jausi (*jausi san10a*) sartalde-euskerako hitza da bete-betean, ‘erori’ zentzuaz.

Matxinfraka (1c), seguruenik herri-pertsonai zeblebre ezagunen baten ezizena izango zan, *Matxin* giza izenari *fraka* izen arrunta erantsirik sortua. *Matxinsalto* eta *matxingorringo* zomorro-izenak ezagunak dira gure lexikoan, edota *matxingarratz* edo *matxinmahats* izenak. Ezizenetan, ezaguna dogu Mogeleg *Peru Abarka*-n aho-korapilo baten sarturik dakarskun *Matxin akerra*.⁵ (113). Herri-kantu edo herri-antzerki erako konposizinoetan goitizenez baliatzea joera

zaharra da gure literaturan. Urrun joan barik, Barrutiaren *Acto*-an zein Muniberen *El borracho burlado*-n be ez dira falta hone-tariko herri-ezizenak. Gaur legez orduan be ugariak ziran, nonbait, gure herri eta uri euskaldunetan.

Orantxe (2b) aldaera bitxi egiten da, forma horren bakantasanagaitik. *Orain* atzizkiaren eratorri batzuetan *oran*- oina ezaguna da: badira *orantsuan* moduko erak, eta antzekoa dogu *orantxe* hau be. Sartalde-gipuzkera eta ekialde-bizkaieraren eremuko aldatzat jo daiteke hau ere.

Onerik (*ordu oneric* 2d) erakusle ablati-boa bere era zaharrea dugu, adberbio eran emana *-onik*, *onerik*-; berariaz denpora eremurako gorde dan aldaera.⁶

Otazal (*otazal bates* 7a) konposatu zaharra dogu, *ogi* > *ot*- bihurturik, konposiera-lege zahararen arabera. Soka horretakoak hainbat dira: *otamen*, *otapur*, *otarrre*, *otondo*, *otordu*, *otzara*, *oteske* besteak beste.

Puntu onetan (1d), ‘oraintxe bertan’ esangurako adizlagun bikotxa dogu hor. *Puntu*an sarri erabilia da denpora zentzuaz, bai lehen zaharrea, bai gaur.

Sakatrapuba (7b), gazt. ‘sacatrapos’, suzko armen hodi-barruak garbitzeko, tiroa bota ondorengo zatarrak kentzeko erabilia zan espiral erako burdinazko tresna bati esaten jakon.⁷ Otazala sakatrapuaz konparazino bikaina egiten dau idazleak. Larramendik be bere hiztegian jasorik dakar, latinez ondoko azalpena emonik: *Obturatorum sclopeti extractorium*.⁸

Terrain (4b, 5a) birritan darabil. Metalezko ontzia, gaur be Gernikaldean sarri entzuten dana *-terriñe* edo *terrinxue*, ‘reci-

piente’ edo lapiko antzeko ontzia aditzen emoteko-. zabal erabilia zan lehenago aldaera diferenteakaz (*terrein*, *terrin*).

Tornuban (1d), ‘inguruan, bueltan’ edo antzeko espazio-zentzunen bat adierazoten ete dauen nago.

Ukitu (*uqitu bague* 6c) gipuzkera joerako aldaera da orohar, baina Kapanaga mañariarrak be halan darabil bere dotrinan (*escuacaz uquitutea* 16).

Onomastikaren aldetik, aipagarri dira, batetik, *Matxinfraka* persona-izengoitia dirudiana, eta *Nafarroa* lurralde-izena.

5.2. Aditz morfologiaz

Partizipioen morfologiari jagokonez:

Kontadu (*contadu deust* 1c) eta *sobradu* (*etsan sobradu* 9d) partizipio-erak bizkaiera-eredukoak dira bete-betea, zaharreko zein klasikokoak.

Aditz izenetan: *idaraitea* (3c) sartaldeuskera zahararen erakoa da. Izan be, *idoro* partizipioaren aditz-izena *idaraite* erakoa dogu *-ediro* aditzarena *ediraite* dateken legez.⁹

Aditz jokoaren barruan, bizkaiera bidekoak dira gehienak: *dogun* (1b), *deust* (*contadu deust* 1c), *neban* (*garvitu neban* 4c), *neutsan* (*garvitu neuzan* 7d), *begi* (*atera begui* 10c). Era berean *zirean* (*nola sirean* 9c) iraganeko adizkia.

Baina gipuzkerara joten dabe beste adizki batzuk. Trinkoen artean: *dio* (2b) darabil eta ez *dino*; *zebilen* (8d) eta ez *ebilen*. Laguntzaileetan birritan darabil *ziden* iraganekoa (*efini ziden* 41, 9b), sartalde-gipuzkerako adizkia bete-betea.¹⁰ Baita *eztet* (10b) eta *degu* (leloa) ere.

Aditz morfologiari jagokonez: *ziden* iraganeko laguntzailea (haiek-niri) birritan darabil (9b).

5.3. Gramatika-berezitasunak

-rikan adizlagun-atzizkia dogu aditz partizipioa markatzen (*prijidurikan* 6a); gipuzkera-ezaugarria bete-betean.

-(n)go genitibo-atzizkia dogu *azken*go izenlagunean (*asquen asquengo orria* 5d), zahar kutsuko gramatikalizazioa, ez baitarabil ez *azkeneko* ez *azkenengo*. Arkaismo beretsua dogu *urrungo* hitzean (*urrun + -go*), inesiboaren gainean. Toki-izenetako gramatika-lege bera dogu hemen toki-genitiboan eranstea: *Irungo* edo *Iturengo* kasurako, edota *-en* graduatzailearen *hurrengo*, *atzerengo* hitzetan.

Tripa ziran (6c) sintaxi zaharra darabil, *nora ziran?* legezko itaunetan dogun berbera.

5.4. Grafiak eta ahoskerak

Grafia dogu, agian, izkribuaren zahartasuna argiroen on egiten dauena, berariaz frikari eta afrikari sabaikarien grafia zalantza-korrek dirala-ta. Instrumental-atzizkiak *-s* egiten ditu beti; joera erregularra dau horretan: *azas veteric* (5a), *otazal bates* (7a), *colores* (5b), *erras* (3c), *prisas* (8d), *Ynchaur salsas* (4a).

Joera berbera beste hitzotan be: *asquen asquengo* (5d), *estarrrian* (6d), *Gastañetati* (8a), *goiseco* (10c), *gosoti* (10a), *guisur* (8b), *saspi* (8c).

Ondoko adizkiotan bardin: *izan balisa* (4d), *sacatrapuba balisan* (7b).

Aldiz, *z* grafiara jotzen dau *neuzan* adizkian (*gauitu neuzan* 7d).

Hitz-ebakeretan *-uba* ahoskera modu erregularrez erabiltea aitzatekoa da, *-u* amaieradun hitzai mugatzailea eranstea: *barruba* (7d), *buruba* (10b), *Ceruban* (2b), *contuba* (10d), *contuban* (1c), *Gabean* (3a), *Munduban* (2d), *sacatrapuba* (7b). Geroago Mogelek eta Bizkai sortaldeko klasikoek sistematikoki erabiliko dabena ebakera bera dogu hemen hainbat lehenagotik, bizkaiera ekialdekoaren ezaugarritzat jo izan dan ezaugarria, baina gipuzkeran barrena be –Donostia aldean garbiro– zabal dabilena.

6. Estilo-baliabide batzuk

Izar eder bat argitu dala (2a) adierazpide-formula ezaguna da balada-erromantze zaharren sarrera-kopletan. Gabon-kanta honetan be, pozezko iragarpen baten adierazgarri gisa erabilia da formula hori, Jesus umearen jaiotza, hatan be.

Milla barri on (2d) sintagmak be egitura egina, finkatua dirudi. Nobedade pozgarri esanguratsuak adierazoteko erabilia zatekean formula bat zan seguruen *milla barri on* (*izango dira*) esaera.

Ezti lapiko zabal bateri barruba garbitu neutsan (7c-d) ahapaldia *Dringilin dron* gabon-kantaren bertsinotetan alde txikiak antzera agiri da: *barrua huts-huts e(g)in neutsan*, bat esateko.

7. Ondorio modura

Hizkeraren arrastoari bagarraikoz, Deba goienean kokatuko genduke kantu honen egilea. Gizon eskolatua, eta gipuzkerako joera garbiagaz. Egilea, gaia dan modukoa izanda, eleizaz osteango ofizioen bateko-tzat be bardin jo geinke –eskribau, zal-

OHARRAK

¹ Añibarro eta J. Mateo Zabalaren idatzietan ugarriak dira honetariko zentzun bereko adibideak.

² Barrotia: “Ez dozu zer *efini* batere dudarik”. Oinatiko Arrazolako *Instruccinuac*-etan *ifini* darabil.

³ J.A. Mogeleg, kasurako, *praca* idazten dau beti bere klasikotasun aldiari, nahiz era zaharren arrastok ere badiran bere idatzietan: *fraca estuac*, calzones apretados (*Disert.* 690);

⁴ Bergaran (Elexpuru), Oñatin (C. Izagirre), Eibar (T. Etxebarria, J. San Martin) halan lekukotua da.

⁵ Honetara dakar aho-korapiloa: “Machin aquerra maquerracoren Aquer adar oquerra baño, aquerric oquerric ez dot icusi nic.” (ms. *PAb* 113).

⁶ Gogora beitez: (*h*)onik *aurrera*, (*h*)onerik *aurre-
ra* eta antzekoak.

⁷ Cf. *Diccionario de autoridades*, Madrid 1737, VI, 11. Edizio faksimila, Madrid, Gredos, 1984.

⁸ Larramendi, *Diccionario Trilingue*, II, 267.

⁹ Kapanagak bere dotrinan (1656) *idoro* eta *idaraite* darabilz. Xabier M^a Munibe azkoitiarrak eta Otxoa de Arin ordiziarrak(1713), aldiz, *ediro* partizipioa.

¹⁰ J.A. Mogeleg be gipuzkeraz diharduenean halan darabil: “ernegatueraci *ciden* seme alabac” (CC 123), “Aita edo Amac niri larga *cidena*, zan maiorazgoa, ez gauza librerie” (CB 245).

dun...–, baina giputz hizkera joera horrek eleizgizona izan daitekela pentsatzeko arrazoiak be emoten ditu, predikuetan eta dotrinagintzan aspaldikoa dalako joera hori, gizarteko beste eremu batzuetan baino agiriagoa eta zaharragoa.

¹¹ *Bizkaie* aldizkari digitalalaren 2008-VI-10eko aleak honako kronikatxoa ekarren aurkikuntza hau dala-ta, albo batean eskuizkribuaren argazkia lagun ebala:

«Oskorrik dokumentu ezezagun bat topau dau Bilboko Rastroan.

Oskorrik oraintsu erosi dau Bilboko rastroan 1750. urte inguruko euskal kantu argitaratu bako bat, 10 koplakin eta partitura eta guzti. Dokumentua nahiko higituta dago, Espainiako Biblioteka Nazionaleko paper ezezagun baten erretratua da, eta ‘Dringilin dron’ kantu ezagunaren sorburu eta orijinala izan daiteke, Pedro Ignacio de Barrotia eta Xabier de Munibe, Peñafloidako Kontearen garaitakoa eta alkarren arteko lotura izateko traza guztiak dituala.»

¹² *Eneafarien*, batera idatzirik.

¹³ *balisa*. Lehenengo *baliza* idatzi dauela dirudi, eta gainetik *s* zuzendu. Ikus beheratxoago be: *balisan* (7b).

¹⁴ *garuitu*. Idazkera iluna: *arquitu* be irakurri daiteke, baina ez dirudi halan danik.

¹⁵ *etsan*. Lehenengo *etzan* idatzi dauela dirudi, gainetik *s* zuzenduaz.

¹⁶ Bateran idatzirik: *eneafarien*.



Ontziak eder du bela edo Itsasu elizaldeko balada: Bi aldaera berri argitaragabeak

SARRERA

Balada ederretan ederrenetako bat Itsasuko Elizaldekoa da. Balada honek gertaera historikoak kontatzen ditu. Gure Itsasu Elizaldeko balada, Urtsuako kanta edo Berterretxen khantorea edo Emilia Lasturko eresia bezala, leku zehatz bati lotuta dugu. Balada honen ereduak Antonio Zavalak sartu zituen bere kantutegian lehen aldiz, 113-116 or.; sailkatu, gainera, (balada) historikoen sailean, erdaraz ematera, “romances históricos” atalean. Antonio Zavalaren arabera (hemendik aurrera AZ laburtuko dugu), baladaren izenburua, guk ez bezala, lehen esaldiak ematen du: “Hala bada etxe noblia...”. Guk geure artikulu honetan ez ditugu balada beraren lau aldaerak hona aldatuko, orain arte argitara gabeko bi berriak baizik. Iruzkina egiteko orduan AZren bi ereduko ahapaldi batzuk, ordea, transkribatuko ditugu¹.

Balada honek, itxura guztiak direnez, Lapurdiko Itsasu herriko Elizalde² etxe nobleko jaun premu edo maiorazko bat du protagonista. Baladan kontatzen diren gertaeren aztarrena edo hari nagusia, kasurik onenean, atera liteke historia-gertaerak aztertuz. Oraingo gure helburu nagusia bi aldaera argitaragaberen testuen transkripzioa ematea da, zuzena, batetik, eta gaurkotua, bestetik. Behin ereduak finkatuz gero, harroin nagusiak eskaintzen ahaleginduko gara bateko zein besteko azterketak bideratzeko.

ITSASU ELIZALDEKO BALADAREN ARGUDIOA

Mulin jauna eta (Itsaso)-Elizaldeko anderea ezkontzekotan daude. Mulin jauna etxeko maiorazkoa edo premua da. Mulin jaunak Mulin etxeko edo Mulineneko seme

nagusia edo maiorazkoa izan behar du, beraz. Mulineneko premu jauna Itsasu Elizaldeko etxe noblera ezkontzekoa zen; eta behin ezkonduz gero Elizaldeko anderegai aberats okituarekin, aberats handi egiteko modua izango zuen. Ez dago dudarik: bien artean aberatsena Elizaldeko anderegaia da. Ezkondu, gainera, emaztegaiaren etxera ezkonduko dira. Modu horretara senar berriak portemantuan eramango du Elizaldeko jaun berri bihurtu dela³. Ezkontzeko, gainera, itxurak direnez, ez da denbora luze-rik falta. Zoritxar latzak, ordea, gogor kolpatuko du bikotea. Mulineneko jauna Larresoroko portuan kontrabandoa egiten harra-patu eta preso hartu dute. Behin preso hartu ondoren, Anglaterrera eramango dute. Emaztegaiak berri hori jakin duenean, nahigabez gaixotuko da. Behin apurren bat suspertu ondoren, bere senargaiaren libertatea erosi nahiko du. Ez dago, ordea, diru-sari nahikorik, ez eta Elizaldeko etxea diruz beterik ere, Mulineneko jaunaren libertatea erosteko. Horrelaxe, bi hitzetan, laburbilduko genuke baladaren hari nagusia.

Hona hemen, aurreko gure sarreraren indargarri, A. Zavalak eskaintzen digun azalpen luzeago bat:

“Leenengo bertsoak dionez, kontra-bandoan arrapatuta galdu du Mulineneko primu delako orrek bere libertatea. Seigarrenean, berriz, anperadoria aitatzen da. Napoleon aundia izango ote da? Bigarrenean, berriz, Anglaterre irakurtzen da. Ara eramango ote duten bildur da Mulineneko premu ori. Itxas-armadara kondenatua, alegia. Bolara batean Inglaterrari erasoko ote zion

asmoak erabili zituan, izan ere, Napoleonek.

Onen garaikoa izango ote da, beraz, kanta au? Ditekena da. Baiña, ala balitz, beste ondoren bat ere atera bearuko genduke: erromantze edo baladen garaia guk uste baiño beranduago itzali zala; kanta auek egiteari etziola gure erriak ain aspaldi utzi; erromantzeak eta bertsoalaritza alkarrekin bizi izan zirala bolara batean.

Kanta onek kontatzen digun gertaera Napoleonen denborakoa balitz, agiri edo paperen batean egongo da bearbada artxiboren batean, Baionan edo Paben edo beste nunbait. Agertuko balitz, garrantzi aundikoa litzake guretzat, bai gertatua argitzeko eta bai gure susmo oiek egiazkoak diran erabakitzeko.

Seigarren bertsoak badu beste txee-tsun jakingarri bat: andregaiaren enperadorearen mintzatzera ere joango litzakela, frantzesa baleki.”

Pasarte honetako uste bat segurtatuko da guk eskaintzen ditugun bi eredu-erarik lehenean. Gure balada honek berrehun urte pasaxeak izango ditu segurua asko –XVIII mende bukaerakoa edo XIX mende hasierakoa–, baladak amodiozko kantuen kitxe bera erakutsiko baitigu: *Kantoreñoak berri-rik, apirilean emanik...*

Baladaren hari nagusiari begira, eredu guztietako ahapaldiak aztertuz gero, zehaztasun gehiagoren jabe egin gaitzake. Zeren kontrabandoa egin ote zuen Mulinen? Bali-teke harmarako kartuxak izatea kontrabandoko gaia. Baliteke gerra garaian, Ingalaterra eta Frantziako gerratean, kartuxa-kon-

trabandoan ibiltzea Mulineneko premua. Mulineneko premua, beste alde batetik, herriren bateko pikotan izan bide zuten AZren bigarren eredu hiru garren aipamenean datorrenez: 3-Kontrabandaren borthitza./ partikulazki kartuxa!/ Harrapatu ez balute/ Mulin premu[a]ren urusa!/ Etzioten, ez, haur guziek/ hunkituko kokotsa! Zergatik ukitzen diote haur guztiek kokotsa Mulin? Baliteke, herri osoaren eskarmentagarri, herriko pikotan belauniko lotua izatea zenbait egunez Mulin jauna. Era horretara, haurrak hurbildu eta kokotsa ukituko zioten...

BI BALADEN TRANSKRIPZIOAK

Oraingo atal honetan, geroagora utzi gabe, jarriko ditugu bi baladen gure transkripzioa, oraingo grafiara egokitua. Bertso-lerroak ere, bestalde, geure erara tolestuko ditugu. Hurrengo bi ataletan jatorrizko transkripzioa eta geure erarakoa azalduko ditugu.

Lehenengo aldaera:

1
*Kantoreñuak berririk, aphirilian emanik,
berri segur jin izan zaiku paper finian emanik,
paper finian emanik eta kaxeta bel(t)xex loturik.*

2
*Elixaldeko anderegaiak aditu zuenian berria,
hamabortz egun egon izan zen ohian eri jarria,
airatzerat utzi zuela eskuan zarokan xoria.*

3
*Hala etxe noblia Itxaso Elixaldia,
harat jaun egin beharra zen Mulineneko primia,
kontrebandan galdu ez balu bere libertatia.*

4
*Elixaldeko anderegaiak aditurik berria
itsasuetan juan behar zela Mulineneko primia
dihurutan galdegin zuen jaun haren libertatia.*

5
*Izan du errepostua, ez baitzen sobera ezta,
urrez bethia izanik ere Itsaso Elixaldia
ez lezakeiela ardiets galdeiten duen grazia.*

6
*Elixaldeko arrosak balin balaki frantsesa,
enpe[r]adoriaren mintzatzeko baluke irrirta,
Baionan eros bailezake harat juaiteko karrosa.*

7
*Untziak eder du bela, zaldiak ere bai zela.
Mulin primu ibili behar zen kabalier bat bezala,
portamantuan izkiriaturik Elixaldeko jaun zela.*

8
*Kartuxak eder zakuan, beren balak muturrian.
Mulin bezen gizon urosik ez zen izanen Frantzian,
arrastatu ez balute Larresorhoko portuan.*

Bigarren aldaera:

1
*Untziak eder du bela, zaldiak ere ba zela,
Mulin premu ibiliren zen kabalier bat bezela
portemantuan izkiribaturik Elixaldeko jaun zela.*

2

*Kontrabandaren borthitza, partikulazki karthuxa.
Gardek arrastatu ez balute Larresoroko portuan
Mulin bezain gizon abilik ez zen izanen Frantzian.*

3

*Elizaldeko anderegeiak jakin zuenean berria,
hirur egun pasatu zituen ofian eri handia
heien buruan galdegin zuen jaun haren libertatia.*

4

*Izan zuen errapustia ez baitzen hanbat ezta,
urhez bethia izan balu ere Elizalde guzia,
ez zuela izanen galdegiten zuen graciak.*

5

*Elizaldeko Arrosak balin baliki frantsesa,
enparadoriaren minzatzeko berak baluke irritsa:
Baionan eros lezake harat gaiteko karrosa.*

EUSKAL BALADEN EZAUGARRIAK GURE ORAINGO HONETAN

Aztergai dugun balada honetan, zein mamian zein azalean, gure baladen ezaugarriak bete-betean ikusten dira. Nahiz, gora-goko puntuan ikusi dugun bezala, balada honek eite berria izan, ezaugarri zaharrak nabaritutako ditugu. Azal ditzagun labur-labur.

Mamiari gagozkiola, lehenengo eta behin handikien edo jauregitarren ezkontza ikusten dugu. Berdin gertatzen zaigu, adibide bat ematera, “Frantziako anderean” edo zehatzago “Urtsuako baladan”. Urtsuako baladan Lantainako alaba Urtsuako jaunarekin ezkonduko da. Biak ala biak handi-mandiak dira. Gure honetan ere zorigaitzak kol-

pe itsua emango die ezkongaei. Behin Mulineneko premua preso hartu ondoren emaztegeiak libertatea erosi nahiko du. Libertatea kosta ala kosta erosi nahi arren, alferrikakoak izango dira ahalegin guztiak. Kontu bera gertatzen da “Berterretxeren baladan”. Berterretxek ezin du bere libertatea erosi, jaun kondeari ehun behi beren zezenarekin eskaini arren. “Frantziako anderean” Frantziako gortetik datorren emazte berriak ezin du bere bizitza salbatu, urrez kargaturiko mandoak eskaini arren. Lantainako alabak ezin du bere neba isildu, dirua eta are zaldi-zela eskaini arren. Euskal balada guztietan alferrikakoak dira *rançon* edo sari guztiak.

Azalari gagozkiola, koplak zaharren teknika-ereduak ikusten ditugu. *Untziak eder bela/ zaldiak ere bai zela* edo *Kartuxak eder zakuan...* euskal estetika goitar batekoak dira. Balada honek badu, gure baladategi laburrean aurkitzen diren beste gai askotan bezala, halako piper eta gatza. Enperadoreak Elizaldeko anderegaiari ematen dion erantzuna bortitza eta errukigabea da. Errukigabeak eta bortitzak diren bezala hainbat eta hainbat galdera-erantzun beste ale batzuetan. Guk ditugun balada honen lau eruedetan bakar batean bakarrik agertzen da lehen eta bigarren pertsona. Eredu bakar batean bakarrik ematen dira elkarrizketak zein bakarrizketak. Eredu hori dugu, dudarik gabe, indartsuena. Lerro hauetara ekarriko ez dugun eredu hori AZren lehen erueda da. Guk lantxo honetan eskaintzen ditugun bi eredu berriak hirugarren pertsonakoak dira; elkarrizketak ere hirugarren pertsonan zeharkako estiloan emanak ikusiko ditugu.

LEHEN TESTUAREN TRANSKRIPZIOA ETA IRUZKINAK

Piarrés Lafittek zituen Hiribarrenen paperen artean letra ederrez transkribatutako kanta bat dator. Letra ederrez, guk uste dugunez, transkribatu nahi den kantorearen balioak halaxe eskatzen duelako. Eskuidatziaren erreferentzia zehatza *Laf 400-002* da, eta dokumentu honetako 10 zenbakian dator gure kanta. Euskara ereduari dagokionez, testu hau ezagutzen ditugun testu guztien artean ekialdekoena dugu. Euskara eredurik garbiena ere berak ematen duela-koan nago, hitz eta irizpide guztiak garbi-garbiak agertzen dituelako⁴. Baxenabarreko ekialdeko kutsua du, gure ustez. Horko hitzek *kantoreñuak*, *duhuru*, *primia* ez ote digute salatzen? Beste ereduetan, Lapurdiko euskara garbiagoa ikusiko dugu: *diru*, *primu*.

1

Kantoregnuac berririk apherilian emanik
Berri segur jin içan çauku paper finian emanik
Paper finian emanik eta cacheta belchez loturic

Kantoreñuak berririk, apherilian emanik, / berri segur jin izan çauku paper finian emanik, / paper finian emanik eta kaxeta bel(t)hez loturik.

Lehen sarrera hau ez dator argitaratutako AZren bi ereduetan. “*Kantoreñuak berririk X-ean emanik*” amodiozko kantu zein kantu narratiboetako sarrera klitxetua dugu. Amodiozkoetan, ordea, sarriago ikusi dugu sarrera hau. Duvoisinien kaierretan ere aurkitu dugu *incipit* hau. Adibidea

ematera, “*Deux contrariés*” izenburupean, honelaxe irakurtzen dugu lehen ahapaldian: *Kantoreak berririk / Apheriléan emanik. / Tristeziak harturik nago bihotzaren erditik; / Uso churi bat galdurik / Nago begiak ilhunik*⁵.

“Kantore” hitza, bestalde, ez dugu inoiz balada batean aurkitu, nahiz Baxenabarreko ekialdean eta Zuberoan halaxe deitu baladei zein amodiozko kantuei zein autoredu kantuei. Paper finean eta zigilu, hots, kaxeta, beltzez datorren kantu hau Erregeren edo Enperadorearen ordenaz datorrela dirudi. Paper zigilatu hau erregeren aginduz –lau haizeetara zabaltzen zen– garai bateko papera dirudi: paper biribilkatua eta xingola edo eraztun batez erdialdean gerrikatua edo lotua. Bada beste kontu azpimarragarri-rik: hainbat baladatan bezala, barne ritornello edo bihurkia dator lehen ahapaldi honetan.

2

Elixaldeco anderegayac aditu çuenian berria
Hamabortz egun egon içan cen ohian eri jarria
Airatcerat utci cuela escuan çarocan choria

Elixaldeko anderegaiak aditu zuenian berria, / hamabortz egun egon izan zen ohian eri jarria, / airatzerat utzi zuela eskuan zarokan xoria.

AZren lehen ereduko bosgarren ahapaldiaren tankerakoa: *5-Elizaldeko andregeiak / izan duenian ar[r]apostia, / zortzi gau-egunez egon umen da ohian eri jarria / beldur[r]ez eta etziyen izanen (jaun haren libertatia)*. Bosgarren ahapaldi honetan emaztegaia gaixotzen da erantzun txar baten

ondoren. Gure kasuan, modu generiko batean. Gure bigarren ereduko hirugarren aipamenean ere gertaera nagusiaren ondoren gaixotzen da. Hiru egun besterik ez ditu ohean egiten: *3-Elizaldeko anderegeiak jakin zuenean berria,/ hirur egun pasatu zituen ofian eri handia/ heien buruan galdegin zuen jaun haren libertatia*. Gure eredu honetan bestetan ez dagoen brisara estilistiko bat ikusten dugu. “Airatzerat utzi zuela eskuan zarokan xoria” bi eratara behintzat irakur eta uler daiteke. Senargaia galtzen duenean emaztegeiak xoria galdu duela pentsa liteke. Pentsa liteke, era berean, Mulineneko premua ez dela gehiago libre izanen, libertatea, hots, eskuan zarokan xoria, betiko airatzera utzi duelako... Bi adiera hauetatik, batek baino gehiagok bigarrrena onartuko lukete. Bigarren adiera honen alde hurrengo ahapaldiak indar egiten duen arren, gure ustez ezin da lehena bazterrean utzi⁶...

3

Hala etche noblia Itxasso Elichaldia
Harat yaün eguin beharra cen Mulineneco primia
Contrebandan galdu ez balu bere libertatia

Hala etxe noblia Itxaso Elixaldia,/ harat yaun egin beharra zen Mulineneko primia,/ kontrebandan galdu ez balu bere libertatia.

AZren lehen ereduko lehen ahapaldi oso antzekoa da: *1-Hala bada etxe noblia/ Itsasu Elizaldia./ Hango jaun egin behar[r]a zinin,/ Mulineneko primu[ia],/ kontrebandan galdu izan ez bazindu/ zuk zure libertatia*. Gure eredu berri honetan,

hirugarren pertsonan dator Mulineneko primia. AZren lehen ereduan, bigarren pertsonan, dramatismo eta indar handiagoa hartuz. Gure eredu oso antzekoa da AZren bigarrenarekin: *2- Ala etxe noblia/ Itsasun Elizaldia!/ Harat jaun behar zela/ Mulineneko premua, / kontrabandan galdu ez balu/ oi! bere libertatia*. Bi eredu hauetan egitura polit bat agertzen zaigu: *harat jaun (egin)*. Ez dago dudarik: Itsaso Elizaldeko anderegaia askoz etxe aberatsagokoa da Mulineneko primia baino.

4

Elichaldeko anderegayac adituric berria
Itxassuetan yuan behar cela Mulineneco primia
Dihurutan galdeguin çuen yaün haren libertatia

Elixaldeko anderegaiak aditurik berria/ itsasuetan juan behar zela Mulineneko primia/ dihurutan galdegin zuen jaun haren libertatia.

AZren lehen ereduko hirugarren ahapaldiaren oso antzekoa: *3-Elizaldeko anderegeiak/ jakin duenian berria,/ itxasuetan juan behar zela Mulineneko primuia,/ dirutan galdatu izan du/ (jaun haren libertatia)*. Ahapaldi honetan, bati baino gehiagori atentzioa emango dio “itsasoetan (preso) joan” esapidea. Ahapaldi hau hobeto ulertzen da AZren lehen ereduko bigarren ahapaldiaren segida bezala: *2-Malurik aski badut nik,/ neure buriari emanik,/ libertatia galdu eta/ izaiteko ez moienik/ Anglatar[r]e ikusi behar dut/ (itsasuetan juanik)*. Ahapaldi hau lehen pertsonan Mulineneko jaunaren ahotikakoa dugu.

5

Izan du errepostua ez baicen sobera ezia
Urrez bethia icanic ere Ytxasso Elichaldia
Ez lezaqueyela ardiets galdeiten duen gracia

*Izan du errepostua, ez baitzen sobera
eztia,/ urrez bethia izanik ere Itsaso Elixal-
dia/ ez lezakeiela ardiets galdeiten duen
grazia.*

Ahapaldi hau eredu guztietan agertzen da. AZren lehen ereduari: 4-*Izan du ar[r]apostia,/ bainan ez anhitz ezia:/ izanik ere urhez bethia Elizaldeko etxia,/ etzuiela harek, ez, izanen (jaun haren libertatia).* AZren bigarren ereduari: 5- *Izan du arra-
postuia,/ ez baitzen hanbat ezia:/ urhez be-
thea balu ere/ Itsasu Elizaldia,/ dirutan ezin
dezakeiela/ jaun hor[r]en libertatia.* Gure bigarren ereduari ere antzera: *Izan zuen errapustia ez baitzen hanbat ezia,/ urhez bethia izan balu ere Elizalde guzia,/ ez zuela izanen galdegiten zuen graciac.*

6

Elichaldeco arrosac balinbalaqui frantsesa
Empeadoriaren mintzatceco bera[c] baluque irritxa
Bayonan eros baileçaque harat yuaiteco carrossa

*Elixaldeko arrosak balin balaki frantse-
sa,/ enpe[r]adoriaren mintzatceco baluke
irritsa,/ Baionan eros bailezake harat juai-
teko karrossa.*

Hemen ere, AZren lehen ereduari bezala, Elizaldeko anderegaia enperadorearekin hitz egin beharrean dago. Ahapaldi hau estetika maila goragoan ikusten dugu AZren

lehen ereduari seigarrenean: *Baratzian eder ar[r]osa,/ harek balaki frantsesa, / Anperadoriaren mintzatceco berak baluke ir[r]isa,/ Baionako hirian eros bailezake (harat yuaiteko [k]arrosa⁷).* Ahapaldi hau ederragoa izanik ere, ulergaitzagoa dugu, ez baita esaten nor den subjektua. Gure bi ereduari, *Elixaldeko arrosa* dator Elizaldeko anderegaia-
ren aipamena egiteko.

Hoskidetasunari dagokionez, *arrosa-
karrosa* dira hoskide bete-betekoak, eske-
kopletan bezalaxe.

7

Untziac eder du bella çaldiac ere bai cela
Mulin primu ibili behar cen cabalier bat beçala
Portamantuan izkiriaturic Elichaldeco jaun cela

*Untziak eder du bela, zaldiak ere bai
zela./ Mulin primu ibili behar zen kabalier
bat bezala,/ portamantuan izkiriaturic Eli-
xaldeko jaun zela.*

Kopla zaharren teknikako ahapaldia. AZren lehen ereduari ere badator ahapaldi hau, baina *Kartuxak eder zakuan* hori lehenago duela. Bada, bestalde, bitxitasuntxo bat: portamantua erabiltzea jaun handien bereizgarria omen zen. Zergatik egiten du gure ahapaldiko irudiko bi imajinetan ontziaren eta zaldiaren aipamena? Ontzian eraman behar omen dute preso, eta zaldiz egin omen duelako kontrabandoa Larresoroko portuan.

Hoskidetasunari dagokionez, *bela/zela* ezin hobekiago datoz. Eta *zela* substantiboa *zela* adizkiarekin hoskidetzea ez ote da markagarria?

Cartuchac eder zacuan beren balac muturrian
Mulin becen ghizon urosic ez cen içanen frantcian
Arrastatu ez balute Larresorhoco portuan

*Kartuxak eder zakuan, beren balak
muturrian./ Mulin bezen gizon urosik ez zen
izanen Frantzian,/ arrastatu ez balute
Larresorhoko portuan.*

Hemen bestetan baino argiago dator
esangura. AZren lehen ereduari, 7an, halaxe
dator: *Kartuxak eder zaikuian,/ beren balak
barnia[n];/ ezagutu izan ez balakote Larre-
soroko portuian,/ Mulin bezain gizon urosik
(etzen izan Frantzian) bis.* Gure eredu hone-
tan, bestetan iluntxo dagoen “zaikuian” gar-
biago dator: *zakuan.* Kartuxak zakuan datoz
eta hori izan bide da Mulineneko premuaren
galdumendia: kontrabandan ibiltzea kartu-
xa-balekin. AZren bigarren ereduko 3. aha-
paldian dator zergatikakoa: *3-Kontrabanda-
ren borthitza,/ partikulazki kartuxa!/ Harra-
patu ez balute/ Mulin premu[a]ren urusa!/ Etzioten, ez, haur guziek/ hunkituko koko-
tsa!*

BIGARREN TESTUAREN TRANSKRIPZIOA

Bigarren aldaera hau ere iturri berean
datza: Hiribarrenen paperetan. Bigarren ere-
du honen transkribatzailea ez da lehen ere-
duarena bera. Letra ere ilunxkoagoa du;
hala ere, ez du transkribitzeko orduan zail-
tasunik. Eredu guztietako protagonistak
berberak dira: *Mulin (premu)* edo *Muline-*

neko premua eta *Elizaldeko anderegaia.*
Gure eredu berri honetan, beti berdin trans-
kribatuko du kontrabandistaren izena *Mulin*
(*premu*) eta *Elizaldeko anderegeia* edo *Eli-
zaldeko arrosa.* Gure oraingo eredu honetan
ere, irizpide finkoak jarraitzen dira *Elizalde*
etxe-izena beti berdin izanen da transkriba-
tua. *Mulin,* ordea, bi modutara: *Moulin* eta
Mulin.

1

Untciac eder du bela çaldiac ere ba cela
Mulin premu ibiliren cen cabalier bat becela
portemantuan iskiribaturic elizaldeco jaun cela

*Untziak eder du bela, zaldia ere ba
zela,/ Mulin premu ibiliren zen kabalier bat
bezela/ portemantuan izkiribaturik Elizal-
deko jaun zela.*

Lehen ahapaldi hau azkenaurrekoa izan
ohi da eredu gehienetan. Gure lehen ere-
duan zein AZrenean, azkenean dator. Hone-
laxe dio AZren lehen ereduari *Untziak eder
dik bela,/ zaldia ere bai zela;/ Mulin primu
ibili behartzen, kabalier bat bezala,/ porte-
mantuan iskiribaturik (Elizaldeko jaun zela)
bis.* Bigarren ereduari, ordea, hasieran:
*1-Untziak eder du bela,/ zaldia ere bai
zela;/ Mulin premu ibili behar zen/ kabalier
bat bezala,/ portemantuan izkiribaturik/ Eli-
zaldeko jaun zela.* Zergatik, ordea, dantza
hau eredu batetik bestera? Erantzuna garbia
da guretzat. Kopla zaharren teknika duten
ahapaldiek kantuak zabaltzen edo giltzitzen
dituzte. Horrexegatik agertzen dira kantua-
ren bi buruetan. Hasieran edo bukaeran,
gehienetan.

2

Contra bandaren borthitça particulazki carthucha
Gardec arrastatu ezpalute Larresoroco portuan
Moulin beçain gizon abilic etchen izanen frantçian

*Kontrabandaren borthitza, partikulazki
karthuxa./ Gardek arrastatu ez balute
Larresoroko portuan/ Mulin bezain gizon
abilik ez zen izanen Frantzian.*

Ahapaldi hau ere eredu guztietan aurkitzen dugu. AZren lehen ereduko zazpian: 7-Kartuxak eder zaikuian,/ beren balak barnia[n];/ ezagutu izan ez balakote Larresoroko portuian,/ Mulin bezain gizon urosik (etzen izan Frantzian) bis eta gorago ikusi dugun gure zortzigarrenean. AZren bigarren ereduko bigarrenarekin, ordea, antzekotasun handia du hasiera-hasieran: *Kontrabandaren borthitza,/ partikulazki kartuxa!/ Harrapatu ez balute/ Mulin premu[a]ren urusa!/ Etzioten, ez, haur guziek/ hunkituko kokotsa!* Ez ote da ari esaten, arma-kontrabandoan harrapatu zutela Mulin?

3

Elizaldeco andere gueac yakin zuenean berria
hirur egun pasatu cituen ofian eri handia
heien buruan galdeguin çuen yaun haren libertatia

*Elizaldeko anderegeiak jakin zuenean
berria,/ hirur egun pasatu zituen ofian eri
handia/ heien buruan galdegin zuen jaun
haren libertatia.*

Ahapaldi hau eta gure lehen ereduko bigarrena bat datoz. Bigarrenean, hamabost egun pasatzen du ohean; oraingo ereduan, hiru egun; AZren lehenean *zortzi-gau egu-*

nez egon zen ohean. Aldaera guztiek indar handia dute, inolako dudarik gabe. Gure lehen ereduan zein AZren lehenean, “*eri jarria* (datza ohean)”. Gurean, nahiz eta hoskidetasuna hain bete-betekoa ez izan *berria*-rekin “*eri handia*” dio. Ez dago dudarik, ezkontzeko bezperan dagoen emakumearen nahigabea handiagoa da, *eri handia* badatza ohean. Bada besterik ere, AZren bigarren ereduko laugarren ahapaldia *Neskatoaren tristia,/ jakin zuenian berria!...* batez hasten da gero beste ahapaldi bateko hariarekin jarraitzeko: *Itsasotan phartitzen zela/ Mulieneko premuya./ Dirutan galdegin izan du/ jaun horren libertatia.*

4

Yzan çuen errapustia ez baitcen hambat eztia
urhez bethia izan balu ere Elizalde gucia
etçuela izanen galdeguiten çuen graciac

*Izan zuen errapustia ez baitzen hanbat
eztia,/ urhez bethia izan balu ere Elizalde
guzia,/ ez zuela izanen galdegiten zuen
graciac.*

Eredu guztietan aurkitzen dugu. AZren lehen ereduan: 4-*Izan du ar[r]apostia,/ bairnan ez anhitz eztia:/ izanik ere urhez bethia Elizaldeko etxia,/ etzuiela harek, ez, izanen (jaun haren libertatia).* AZren bigarren ereduan: 5-*Izan du arrapostuia,/ ez baitzen hanbat eztia:/ urhez bethea balu ere/ Itsasu Elizaldia,/ dirutan ezin dezakeiela/ jaun hor[r]en libertatia.* Gure honetan, ordea, beste inongo eredutan agertzen ez den hitz indartsu bat ikusten dugu: *grazia*. Enperadoreak ez dio emango eskatzen duen *grazia*. Ez dio emango bere senargaiaren libertatea.

Elizaldeco arrosa[c] balimbaliki frantsesa
emparadoriaren mintzaceco berac baluke irrisa
bayonan eros leçake harat gaiteco carrosa

*Elizaldeko Arrosak balin baliki frantse-
sa,/ enparadoriaren mintzatzeko berac
baluke irrirtsa:/ Baionan eros lezake harat
gaiteko karrosa.*

Ahapaldi hau ere eredu guztietakoa
dugu. AZren lehen ereduan, koplazaharren
teknika erabiliz ematen da ahapaldi hau: 6-
Baratzian eder ar[r]osa,/ harek balaki
frantsesa,/ Anperadoriaren mintzatzeko
berac baluke ir[r]isa,/ Baionako hirian eros
bailezake (harat yuateko [k]arrosa). Hitzei
gagozkiela irrirtsa desira handia da. Biga-
rren ereduko 6- Elizaldeko arroxak/ berac
balaki frantsesa,/ enperadorearen ikusteko/
berac baluke irrirtsa./ Baionan eros bailio/
harat joaiteko karrosa. Eredu guztietan, hitz
batean, kontu bera ikusten dugu. Senargaia-
ren libertatea erosteko ezin du gorago jo,
ezin du Enperadorearekin hitz egin.

AZKEN IRITZI BEZALA

Lantto honetan, baladagai beraren bi ere-
du desberdin eman nahi izan ditugu. Gure
asmo nagusia eredu biak finkatzea izan da.
Behin finkatuz gero, konparaketa txiki bat
egin dugu gainerako aldaerekin.

Bi balada-ereduak, gainera, euskalki eta
ia azpieuskalki bera dute oinarri, xehetasun
tipiak gorabehera. Baladagai hau Lapurdi-
Baxenafarroetan ahorik aho ibiliko zen.
Ezagutzen ditugun lau ereduetan, bi lapurta-

rrak eta beste bi baxenabartarrak dira. Gure
oraingo honetako biak ere ildo bera marka-
tzen dute. Lehen eredua ekialderagokoa da,
dudarik gabe.



OHARRAK

¹ Lan hau beste lan luzeago baten pusketatxo bat baino ez da. Lan luzeago horretan lau eredu transkripzioa egiten dut. Hemen, labur-zurrean, bi eredu argitaragabeen transkripzio eta iruzkinak egingo ditut. Gainerako bi eredetako transkripzioa eskuidatzieta-tik abiatuz egin dugu.

² Lapurdiko Itsasu herrian Elizalde deitzen den etxe handi bat ba omen dago, bertakoen testigantzen arabera. Gaur egun Elizalde izena zuen etxe noble hori *Hôtel de la chène* omen da. Izen euskalduna frantsesurik, beraz. Zergatik *Hôtel de la chène* delakoa? Ondoan haritz izugarri handi bat omen zuelako.

Balada honetako gertalekuak ezin dira ehuneko ehunetan ziurtatu. Itsasu herriko Elizalde handietxea ez da, beraz, nahitanahiez gertaeren leku erabatekoa. Aldaera berriak baino datu historikoez –artxiobotan, nonbait, gordeta daudekeen zehaztasunek– eman ditzakete. Beste alde batetik, Itsasu berez Lapurdi izanik euskarari gagozkiola baxenabartarra dugu. Gure aldaera hauetan, lapurtera ez-ezik, Baxenabarreko euskara ere aurkituko dugu.

³ Portemantuan eramatea jauntasunaren seinalea beste balada batean ere agertzen da: AZren baladategian “Gainkoak deizula egun on...” delakoan honela irakurtzen dugu: *–Eta zuk nondik dakizu ni erregeren portal-zaina naizala?! –Irakurri dut zure mantoaren hegala.*

⁴ *Elichalde*, anderegaiaren etxearen izena, beti modu berean idatziko du. Berdin idatziko du 2, 3, 4, 5, 6, 7 ahapaldietan. Halaxe ote zen jatorrizkoan? Besteetan Elizalde agertzen da.

⁵ Adibideak zenbat-gura aurki litezke. *Kant(h)oreak berririk/ X-ean emanik* delako formula bi eratera ulertu daiteke: X-delakoa “denbora” edo “lekua” dela. Azkueren kantutegiko bi bakarrik ekartzearren “Canciones narrativas sailean”, bigarren tomoan, 645-*Kanthoreak berririk /BaxeNabarren eginik./ Nihor, nihor ere balin bada/ Ikasi nahi tuenik/ Kostaturen etzaio deus ere/ atenzionea baizik (bis)*. “Canciones amorosas” sailean, lehen tomoa, 54-*Kantoreñoak gure herrian amodioaren gainean/ berri berriak emanak dire Bazko biharamunetan./ Urtzo kolonba xuri polit bat neuraukan sare barnean;/ ene sareak urtxorik gabe miatu nintuean/ harritu nintzan joan ote zen hegalik gabe airean (bis)*.

⁶ Beste era batera esateko: gure ustez “zentsudilogia” baten aurrean gaude. Hau da, esaldi bat bi era desberdinetan, zuzenki eta zentzuz, interpretatu daiteke. Kontu honek, dudarik gabe, aberastasun berriak ematen dizkio testuari.

⁷ Kopla zaharren teknika dugu ahapaldi honetan *non eder zer* egitura irudian agertzen dela. Arrosa eta karrosa hitz hoskideak kopla zaharretan ere ikusten ditugu. Eman dezagun adibide bat. Azkuek Iturenen jasoa, ikus bedi “Canciones de ronda” sailean “913-Agur agur etxeoak” kopla-bildumaren VI ahapaldia: *Etxean eder herresa,/ yauregian karrosa,/ etxe huntako nagusiak iduri du arrosa.*



MIREN IBARLUZEA

Poemak

ADITU...

ZAIN IZAN NAUZU

Zain izan nauzu.
Zain, beha, esperoan...
Antza,
gure segundoak
ez dira
prezio berean
saltzen.



PAUSOEI SO NAUKAZU

Niganako
pausoei
so,
zure
begiradak
lorratza
utzi dit
azalean.



BILA NABIL

Bila
nabilen
susmoa
duzu.
Aurkitu
zaitudala
ba
al
dakizu?

BADAKIZU

**Lagun egitera
natorkizula
badakizu.**

**Esan egin nahi dizut,
baina.**

ZER MODUZ?

**—Zer moduz zu? —
galdetu dizut.**

—Ondo, oso ondo.

**Pozik bikotekide berriarekin —
erantzun didazu.**

**Nik ez dizut,
baina,
harremanagatik galdetu:
ZU, ZER MODUZ ZU?**

DENBORA TARTEAK RALLYAN

**Ametsen
bide lapurra
etorri zait bisitan,
arteak hartu ezinda,
izar artean,
izara artean.**

**Soseguan
ohartu naiz
zu baizen
bisitaria
ardura
zergatik den.**

**Oso lantzean behin
ikusten dugu elkar,
ustez
denbora laburrez
gutxiaren malda errez,
eta gutxirako
harmoniaren estasia
amilduko den beldur garelako
ni,
eta bihotza
taupaka
rallyan.**

ESKUAK

**Begiratu izan diet
idazleen eskuei
luma estutzen, teklak zanpatzen...**

**Eta arretatsu
begiratzen diet
zureei ere
beti:**

**Mugitzen dituzu hitz egitean,
heltzen diozu zigarroari...
Aldatu duzu eskuaren posizioa
zigarroaren ordezkantuta eman dizudanean erretzera,
estutu duzu, urduritasunean, kale egin dizutela diozunean...**

**Oratu diozu
nireari,
eta begiratu diot,
agurraren unean bertan...**

**Ez dakit, baina, ziurtasun osoz,
zer ez zaren esatera ausartzen:
gera zaitez nirekin...
edo
nik ere atsegin ditut...
edo
nik ere desio dut
zureek ilea kiribilka diezadaten.**

DENBORA BADOA

**Non
galdu ote da denbora...
Non
ezkutatu tartea...
Heldu
omen naiz,
eta
gaur arte
ez naiz
konturatu.
Antza,
erlojuaren atzean
egon zara
gordeta.**

Gizon txikia

Gizon bat etorri da kaletik behera. Eskuak boltsikoetan eta begiradea galduta dauka ez-daki-non. Zeren ganera pentsetan dabilen itaundu ezkerro, ezingo leuke erantzun. Ez daki.

Kalean behera, zenbat bider zapaldu dauzan kaleok. Zenbat bider taberna berberen aurretik igaro, zenbatetan orduak hareetan emon. Zapatak erre-ta daukaz, ideen moduan, behinolako amesen moduan. Erreta baino gehiago ezabatuta daukaz amesak. Non geldituko ete ziran herritik urten ebaneko ames polit hareek? Mundua ezagutzeko etxetik urten eta Bilbora baino ez zan heldu. Eta bertan hil jakozan amesak urtez urte. Astiro. Baina aspaldiko domeka baten untzek ohean lotu eben. Bere gorputzak inoz baino pisu handiagoa eukan, gorpuak lez. Ahoa zabaltzea ia ezinezkoa jakon. Ezpanak eurak be astunak, ia ezin eben barbarik egin. Mundua lanbrotu egin jakon. Andreari mosu egin gura izan eutsan. Andrea, baina, ez egoan ondoan, komunera joateko altzau eta domekako armozua preparentan sutera joan zan. Zereginak, eginbeharrak.

Untzaturik geratu zan. Begiak itxi eta ameseta txarrak etorri jakozan, baina begiak ezin ebazan zabaldu. Ameseta txarrek izaturik eutsi eutsien. Untzatuta.

Andrea gauean etxera etortean, bentanatik ikusi eban, asagotik. Etxean ezin izan eutsan esan zer gertatzen jakon. Ahoa zabaldu eta zulo baltza sartu jakon ahoan. Iluna.

Astelehenean beharrera joan behar izan eban. Ez egoan beste biderik. Dirua. Betebeharra zan, derrigor egin beharrekoa. Eta lanera joan zan. Burua hutsik eban, eta, halanda be, ezin eban berba bakar bat sartu, ezin eban idearik txikiena eta sinpleena sartu eragin. Eguerdian gose izan barik, bere burua behartu eta lankideakaz bazkaltzen joan zan.

Egunak eta asteak joan ziran. Bere gogoa ez zan hobetu, eta hobetzeko antzik be ez. Hasieran beharlekuan ez eutsien ezer itaundu. Lankideen artean berbabide izan zan, haregana itauntzen joaten ausartu barik. Hirugarren hilabeteen langilerik zaharrenak galdetu eutsan ea ondo egoan, gaixorik

egoan edo etxeko zeozer zan. Galdera guztiek erantzun bakarra izan eben: ez. Ez eukan ezer. Ez arduratzeko. Burumakur kotxean sartu zan.

Berak be ez ekian zer egin, zer gertatzen jakon ez ekian. Lantzean behin etxerako bidean itxasoa ikusten joaten zan. Berak ez eukan bizitasuna eskaintzen eutsien olatuek. Blaust arroken kontra, blaust, eta hatxak bustiten ebezan. Hatxetako bat izan gura izaten eban. Arrokek jasoten eben ura, umeltasuna, jaso, itxasoaren indarra.

Etxean emaztea gero eta goibelago egoan. Gizona, halanda be, ez zan jaubetu. Andreak ez ekian zelan jokatu, zer esan, zein berba erabili gizonaren baitan oihartzuna izateko. Bai edo ez baino ez eutsan erantzuten, besterik ez. Etxeko giroa gero eta hotzagoa zan, aireak dana hartzen eban. Giroa, airea, arina zan. Gorputzak, ostera, beruna baino astunagoak. Giroaren eta gorputzen arteko aldea, gero eta handiagoa. Gorputzen eta airearen arteko mugea ikusgarri baino areago, mundua bitan banatzen eban. Bisita gitxi izaten eban. Lagunak ez ziran eroso sentiduten, eta joateari itxi eutsien.

Gabonetan baino ez ziran batzen neba-arrebak. Eta etxearen hoztasunak ez eutsan onik egiten Gabonetako giro beroari, epeldu egiten eban-ta. Halan ba, afariak eta bazkariak han egiteari itxi eutsien. Neba-arrebek gurago eban hareek ez etortea. Baina itxurea gorde behar eban, itxurea zaindu. Ezin eban etxeko bat bota. Ezer esan barik, eurek be hotz jokatzeko eban hareekaz.

Gizona ilun sentiduten da baina ezin da ilunean egon, eta argiak biztuta izan dauz andrea etorri arte.

Emazteak fabrika baten behar egiten dau. Hama-zapi urtegaz sartu zan fabrikan, eta ordutik jai egunak eta oporrak izan ezik, egunero-egunero beharrera joaten da. Inoiz hutsik egin barik. Baziran lau urte ha guztia hasi zanetik. Egun baten ohera untzaturik geratu zan eta gogoak berbarik esateko ez eukala sentidu eban. Aurretik be ez zan oso berbattia, eta senarra ez zan ohartu. Edo hori begitandu jakon berari. Gizonak betiko moduan jokatu eban urtebetez. Harik eta domeka baten, armozua egiten altzau, eta gizonak begirada galdua ikusi eban arte. Ez eutsan ezer itaundu. Baekian zer eukan.

Denporea urtaroetan neurtzen dabe: beroa, sargoria, epeltasuna eta hotza. Erropa gehiago edo gixiago.

Udako zaratak beste mundu batetik etorriko balira moduan entzuten dabez. Fatxadearen bestaldetik. Kristalek hain mehe, hain garden, izanda be, unibersoko espazioa euren baitan hartzen dabela erexten deusie. Halanda ze, olgeten zaratak beste mundu batetik datoz, beste planeta batetik.

Mila eta zortzirehun egun igaro dira. Handik lau egunera, ohean aurkitu dabez. Azala ubel kolorekoa, gogortuta. Begiak hormatuta. Ez dabe sufrimendu keinurik. Hareei begiratuta ezin da esan aurpegi hareek ezer adierazoten daben. Ohean etzan dirala dirudie, herioaren zain.

Maitasun, gogo, faltaz hil dira. Hotzaren hotzez. Udako egun sargoritsu baten.

IÑIGO ROQUE

Fumatto, Labirintoak, Atlas zaharra

FUMATTO

Adarbakarrakaz amets egin gura neuke,
edo, osterantzean, zaldi urdinkarakaz,
eta ikusi zelan egiten daben salto eta brinko
atseginen lorategian legez,
edo ikusi Uccello-ren hegazti hareek,
urunezko eta arrautzazko geruzen ganean pausatutik,
karezko geruzen azpian katigu.

Baina
batzuetan
Bosch-en purgatorioak
nahastaten deusuz
gogoetak eta ametsak,
lotan zagozela.
Munstroz eta sufrikarioz beteriko
mundu batek azpiratzen zaitu,
eta zurrungek eurek be
nekez egiten dabe ahotik kanporako bidea.

Baina
batzuetan
amesetan
uriek ez daukie porlanezko mugarik,
eta hondamen handi nahiz txikiak desegin egiten dira,
behin bakarrik putz eginez gero,
jakin arren
sakonean
karezko milaka geruzaren azpian
zutunik irauten dabela.

Eta halan egiten dogu amets,
bakarrik.

ATLAS ZAHARRAK

Leihoak iragazi egiten eban
kanpoko haize hotza;
egurrezkoa zan,
mila bider zuriz pintatua;
ixteko sistema xelebrea eukan:
burdinazko ziri bat
eta buelta-bueltan
ezertarako balio ez eban
goma gris bat, geuk itsatsia
(negurako aduana barregarria).

1998ko zati batean
ikusi neban handik mundua,
eta 1999ko parte nagusian,
Gasteizen.

Han ikusi genduan
edurra jausten
mara-mara,
eta edurtza eta izotz hareek
saneatu egiten dabe orain
oroimenaren zelaia,
zomorro guztiak hilez,
txomin bedarrak eta
parte gaiztoko landareak
kiskaliz.

Pintura zurizko
zipriztin batzuek
populatzen zituen
kristaleko izkinak.

Emoidazue pintzel bat,
eta marraztu egingo deusuet
mapa puntu-zuri ha,
Txekoslovakiarena
edo Austria-Hungariarena
marrazten diran legetxe.

LABIRINTOAK

XVIII. gizaldiko ingeles handikiak
jolasten ziren landare-labirintoetan
udako eguerdi sargoritsuetan,
limoi-ura klikatu bitartean.
Inor ez zan bere onetik ataraten,
eta artaziakaz zulatzen hasten horma hosto-berdeak,
labirintoaren erdira ailegetako
edo handik itolarrian urteteko?

Ez al da zibilizazioa beti izan horixe,
etxe horma-eder eta barne-huts bat,
erromatar tenplu teilatu bako bat ordokiaren erdian?

ANDRES URRUTIA

Azkueri gorazarrea



R. M. Azkue Aberasturi
(Lekeitio 1864 – Bilbao 1951)

Azkue euskaltzainburua 1951ko azaroaren 9an hil zen Bilbon. Bere ohorez egindako omenaldiak bat baino gehiago izan ziren. Hauen artean, zalantzarik ez, Euskaltzaindiarena. Honela idatzi zen gerra ostean *Euskera* aldizkariaren bigarren zenbakian, 1957. urtean:

«Azkueren omenezko jaiak lotazileko hogeta hamarrean hasi ziren Bilbon. Goizeko bederatzietan meza bat egon zen Santiago Apostolen euskerazko sermoiarekin, Aita Berriatuaren ‘Lagunarteko mezea’ erabili zelarik. Egun horretan, D. Nazario Oleagak hitz egin zuen, eta gero *Sociedad Coral de Bilbao* kantatu zituen Azkue beraren harmonizazio batzuek. Hurrengo, ‘Hileta’, Escudero jauna gidari zelarik eta berrehun eta berrogeta hamar kantari inguru, gipuzkoar eta bizkaitar gehienak, Bilboko orkestorekin. Hona zein taldetakoak ziren kantariak: *Schola Cantorum, Coro Easo, Coro Maitea, Coro Santa Cecilia, Coro Stella Maris, Coral de Zarauz* eta *Sociedad Coral de Bilbao*. Frantzisko Agara izan zen solista.

Zenbait telegrama hartu ziren gizon ospetsu batzuegandik, oneritzia agertzen zutela.

Bezperan Euskaltzaindiak batzarra egin zuen bere etxean eta Bonifazio Etxegarai jaun euskaltzaina hil zela eta, haren heriotzaren begirunez bukaera eman zitzaion batzarrari, solasaldi bateri bidea emanik.

Luistarren saloian ilbeltzeko bigarrean apaizak izan zuten batzarraldia, apezpiku jauna mahaipuru zelarik. Hitz egin zuten D. Gregorio Maidaganek, D. Juan Ibagutxik, D. Jose Maria Olaizolak eta D. Andres Mañarikuak. Apezpiku jaunak hitz samur eta bihotzeko batzuekin bukatu zuen.

Erregetan izan zen bigarren jaialdia, *Coliseo Albian* hau ere, D. Antonio Arrue mintzatu zen. Gero Euskaltzaindiko euskal ikasle eta teatrugileak eta Olaetaren dantzariak egin zituzten beren agerraldiak. Balentin Enbeita bertsolariak zenbait bertso bota zituen. EGANen ikusi daitezke (1957, 1-2, 75 or.). Bukaeran ‘Gernikako arbola’ kantatu zen, ikusleak ere oso-osoa parte hartu zutelarik. Gero orkestak martxa erreala jo zuen. Hemen argitaratzen ditugu egin ziren hitzaldiak».

(*Euskera*, II-1957, 5 or.)

Halakoetan Eusebio Erkiaga lekeitiarra eta Azkueren herrikidea ere ibili zen. Haietatik, hark idatzitako artikulua berreskuratu dugu: «Azkue euskaldun haundiaz Lekeitio zorretan dago». Artikulu hori argazki eta guzti agertu zen *Anaitasuna* «Suplemento a la Hoja *Anaitasuna* de Guipúzcoa» aldizkarian (35 zk., 1956), Erkiagak aldizkari horretan geroagogarrenean, txiri-txiri, onduko zuen artikuluerreskakatxoari hasiera emanez.

Andres Urrutia

Bibliografia

ERKIAGA, Eusebio: «Azkue euskaldun aundiaz Lekeitio zorretan dago», *Anaitasuna (Suplemento a la Hoja Anaitasuna de Guipúzcoa)*, 35. zenbakia, 1956, 1-3 or.

EUSKALTZAINDIA: «Azkueren gorazarrez egindako itzaldiak», *Euskera*, II zenbakia, 1957, 5 or.

Azkue euskaldun haundiaz *Lekeitio zorretan dago*

Zein ete dau gai pozgarriagorik, oraingoz, euskal idazle batek, R. M. Azkueren gainean jardutea baino?

Holantxe da. Eta ganera, badogu poz hori berarizkoago eta barrukoago egiteko errazoi eta ziorik. Gaur aitatu eta goratu nahi doguna herrikidea dogulako, Lekeitioko seme, hain zuzen be.

Aldi honetan gure Eliza Amak liburu santuetan aitaturten dauan antzera esan ginei: «Poztu zaitetz ba, Lekeitio; zeu uri txikia izanik, euskaldun handienetako bat zure magalean sortu izan dozulako».

Eta ez sortu bakarrik, hazi eta bizi be, gehienbat, Lekeition egin zalako. Batzuetan kanpoan ibili arren, haren gogo eta maitasuna une oro bere sorterri kutunagan eban eta. Hona zegaitik. Udar, hirulau hilabete egoten ekian bere baztertxuan. Eta bera beti egon oi zan lekuan, Euskaltzaindiaren etxe zabalean, Bilboko Erriberako bere langelan zituan lagunik kutunenak, honeixek ziralako: hiru foto eder, hirurak Lekeitiokoak.

Eurotarik bata, luzangea da, lau zatiz hornidua; portu osoa erakusten dauskuna alderen alde, eleiza ostetik hasi eta ipar moila-muturrerainokoa. Hantxe agiri da, bere azken urteetan bizi izan zan etxe gora eta liraina. Jaio zan etxea ez da han agiri, baina bai Konpainiako eleizearen teilatua. Honen ondotxuan dogu haren jaiotetxea.

Bigarren argazkian, plazea, eleizaurrea eta kaia agiri dira. Eta hirugarrena, Lekeitioko altara nagusi gotiko ospetsuarena da. Aurrez aurre, bere pianu ganean eukiten eban gure apaiz euskaltzale eta herri-maite zintzo harek.

LEKEITIOREN ZORRA

Beharbada, ez da gure jaioterrian honen ereduko edo neurriko gizonik sortu izan. Dana dala, mundu guztian zehar, filologi jakintsuen artean gure herritxua ezaguna baldin bada, Azkuegaitik da. Eta Euskalerrion bertan bere, gure Don Resurrecciónen mailako gizonik, gitxi bai gitxi izan da. Harrokeririk bage, horra egia esan.

Zor haundia dautso, ba, gure jaioterriak bere seme gailen eta handi honeri.

Lekeitioko Udalak erdi erabagita-edo dituan asmuok, albait lehenen bete eta egiztau behar leukezala dirudi: Azkueren izena kale ederren bateri ezarri; haren jaiotetxean harlandu txairo bat ipini eta haren gomutaz, eta leku egokiren baten irudi ikusgarri apain bat jaso. Eta Herriko Seme Kutuntzat izentau.

Bere herria hainbeste goratu dauanak, hori eta gehiago be, ondo merezi dualako.

GURE GIZONA

Lekeitiarra zan haren aita, Eusebio Maria, maisu argi eta euskal olerkari bikaina. Honen omenez, 1936ko bagilean, hau idazten dauanak, hitzaldi labur baten ondoren, gomuta-harria agertuteko atsegina izan eban.

Ama, mundakarra izan zan, Mari Karmen Aberasturi. Jaio, 1864ko abuztuaren bostean jaio zan, Apa-
lloa kaleko goienengo etxean, goruntz igonik eskumataraz.

Bere jaiotegunez, urtero ekian joaten etxe maite horretara, ordu bat edo bi bertan egoteko asmoz, han bizi ziran adiskideen artean. Bihotz samurra iragarten dauan egikera bakana!

Aitak, bere jakintza gaiak irakatsi eutsazan, Nautika kontuak. Baina handik lasterrera abadekigintzan jardun eban abade egin arte, eta Teologiako doktore, ganera. Harrezkero, euskera-minak jo eban burutik behatzetaraino, eta baita musika-zaletasunak be.

Aldi haretan, Bizkaiko Diputazioak euskerea goratu eta indartu nahirik, euskal katedra bat sortu eban Bilbon. Bost gazte gartsuk agertu eben euren burua, euskal maisu izateko. Eurotariko hiru oso eza-gunak izan ziran handik aurrerantzean: Arana, Unamuno eta Azkue, hil ziranez izendatuak.

Gazterik hil zan Arana; alabaina, euskal soloan lorratz bizia eta bere *eskola* utzirik eta idazle ugari-
ren hazi izanik Unamuno bere, euskaltzale gartsu izan zan gaztetan, geroago garrik eta surik barik gel-
ditu arren.

Azkuek lortu eban zeresan ugari ostean, katedra hori. Eta ordurik eta heriotzara arte, urte luze eta luzeetan, bai zintzo ekin be, euskera-maisutzan...!

LIBURU JAKINGARRIAK

Hainbat eta hainbat liburu eder agertu izan ditu R. M. Azkue abadeak.

Batez be, euskal hiztegi nagusia, *Diccionario vasco-español-francés* (DVEF), izan da haren emaitzik joriena. Orain dala berrogeta hamar urte agertua, tomo bitan. Beste edozein gizon jakitunek esana, barriztau daigun: gizon pilokada batek egiteko lan ikaragarria dana, bakar batek egin eban, geure herri-tarrak.

Norbaitek esan ebanez, liburu hori argitaratzean, asmo zolia izan eban, ganera: arean, gaztelaniaz ez ezik, prantsesez be egitea. Horrek ezagutuerao dau harrezkero gehienbat, Europan eta mundu zabale-
an, gure euskera zahar eta baliotsua.

Beste hiru lan bere, ezin neurtuzkoak izan dira, handi, bikain, mugabakoak; Azkuek eginak lan eten-
bagean.

Galtzeko arriskuan ebiltzan gure kanta eta abestiak, euren musika eta letraz batzeko, dei bat egin eban Bizkaiko Aldundiak. Gizon azkar bi agertu ziran, bakoitzaren sorta ederrak bildu eta aukeratu ondoren: Azkuek mila eta gehiago kantaz eginiko txorta ederra; Aita Donostiak beste txorta jakingarri eta mamintsua. Gizon biok joan jakuz alkarren ondorik, Euskalerrria minez eta atsekabez eta hutsune bete ezinekoz utzirik...

GRAMATIKA LANAK BARRIRO BE

Musika arloa hain maitagarri eta begiko jakon arren –konpositorea be, ez zan makala eta–, barriro be jo eta su ekin eutson Azkuek gramatika-lan astunetan.

Artean, gure Euskaltzaindia, Euskal Akademia sortu eben Oñatin, Espainiako azkenengo erregearen aurrean, 1918gn. urtean. Eta halan behar eta, lekeitiar euskalaria aukeratu eben mahaipuruko, beste gizon argi askoren artean: Kanpion, Elizalde, Karmelo Etxegarai, eta abar. Hasierako lan nekagarria egiteko guk orain ez dogun kemena eben gizon errime, adoretu eta ahobatekoak.

Handik urte asko baino lehen emon eutsan euskereari bigarren liburu baztertu ezinekoa: *Morfología vasca* izeneko elizti ugaria. Idazkera batasunerako bidea be agertu euskun, haren eritiziz, egokiena zana: gipuzkera osotua, ulerterrezena dalako.

Azkenengo lanetan ederrena, *Euskalerraren jakintza* izan da, lau tomo lodi mamintsutan euskaldunen siniskera, ohitura, ipuin, esakera, kanta eta osakaien barri.

Lanok badabela akatsen bat edo beste? Jakina ba, gizonen lana ez ezik, gizon baten lana izan dalako. Baina zelako lana! Sinistu ezinekoa, benetan be!

Berak eraturako izena da ‘Neguri’, gaur haundikien herri apain bihurtutakoa.

Madrileko *Academia Española* dalakoan, hizkeltzain egin eben 1928gn. urtean. Pariseko eta Alemaniako eta Errusiako bazkuna jakintsuetako tarteko be bazan.

Teatru-lanak be egin zituan: letra eta musikea, guztia berak asmaurikoa. Zarzuelen artean agergarriena, eta ezagunena, *Vizcainik Bizkaira* da. Opera bi be egin zituan: *Ortzuri* eta *Urlo*, hau euskeraz, erderaz eta alemanez.

Eleiz irakurgaiak, kantak, ume-antzerkiak, nobelak: *Behin eta betiko*, *Ardi galdua*, *Latsibi* –hau agertu barik oindino– hiztegi txikiak, gramatikak, aldizkariak...

BIDEBAGEKERIA ZUZENTZEN


Lanik gehienok laguntzaile eskasez edo bakar-bakarrik eginak zituan. Ez da erarik onuragarriena izan euskerarentzat bakartadeko ekintza hori.

Barri haundiko eta adore aparteko gizona izan zan, nunbait bere! Sarri askotan bidebagekeriz, euskaltzale izeneko askok urteetan eta urteetan baztertuta, eta zapaldu gurarik lez izan eben gure gizona. Mingotsa da esan beharra, baina egia da. Guzurrea dirudi gizon haren herri-maitetasuna norbaitzuen ahomihinak zalantzan ipinia...

Bidebagekeri hori eta esker gaizto hori, ostera, haren heriotza ondoren, euskaltzale guztiok aho batez eta bihotz batez zuzendu nahi dogu.

Azkue eta euskerea gure bihotzetan alkar bat eginik jarri nahi ditugulako. Eta, berberak D’Abadie euskaltzale aipatuari esan eutsan lez: «behin eta betiko».

Eusebio Erkiaga



**Hamaika idazle. Irakurri. Hamai-
ka idazki literario irakurtzeari
buruz.** Meettok, 2008, 188 or.

Lau hilabete egin dodaz irakurri barik, hain zuzen be, nire alabea jaio danik hona. Danok dakigu apurka-apurka gauzak alde batera ixten doguzana, ia konturatu barik, asti faltagaitik batzutan, beste behar batzuk hartzen doguzalako beste batzutan, edo beste barik, lan horrek probetxurik ez daukala pentsatzen dogulako.

Horregaitik ez da kasualidadea lau hileren ostean liburu hau irakurtzea, irakurtzen segiduteak nire bizimoduan zelango garrantzia eukan jakin gura izan nebalako. Eta hamaika idazleren eretxia jakitea aukera paregabea iruditu jatan. Eta hamaika idazleok ez dira edozelangoak: Uxue Apaolaza, Pako Aristi, Itxaro Borda, Harkaitz Cano, Angel Erro, Edorta Jimenez, Felipe Juaristi, Mariasun Landa, Anjel Lertxundi, Eider Rodriguez eta Iban Zaldua.

Idazle bakoitzak bere ikuspegia emoten deusku irakurtzeari buruz, modu literarioan batzuk eta gogoeta moduan beste batzuk. Eta esaldi eta gogoeta gogoangarriak egiten ditue, nire ustez, hori bai, irakurtzea

guztiz subjektiboa dala guztiok dakigu eta. Irakurtzeak merezidu dauala konbentzitzeko hainbat eta hainbat pasarte azpimarratu neikez, esaterako: Zergaitik irakurri? “*Gorputza erabaki gabe gozatzea posible dela ikasten dugulako*”. Eta idazle handi horren moduan be askotan sentidu nazelako, sano harro nago: “*Liburu bat erretzen dutenean, liburu bat bauts bihurtzen dutenean, liburu bat biltzen dutenean, gu ere biltzen gaituzte, gu ere bauts bihurtzen gaituzte, gu ere erretzen gaituzte. Gu ere, neurri batez, liburua gara, bezur eta haragizko liburua*”. Edo beste hau: “*Gau beranduan eta argi txikitari liburu bat utzi ezinaren esperientzia paregabea ordainezina da eta ez da artearen beste alorretan gertatzen*”.


Azken baten, nik badakit irakurtzea inportantea dana nire bizimoduan, eta irakurtzen jarraituko dot, ez bakarrik liburu honetan irakurri dodazanak irakurri dodazalako. Baina onartzen dot guztiok ez daukagula irakurtzeko beharrezanik, idazleotako batek dinoskun lez, literatura idatzitik aparte beste literatura bat be badagoalako, gu geu literatura garealako, gutako bakoitza liburu ibiltaria dalako (irudi polita, benetan).

Nire alabeari liburuak irakurtzea inportantea dala irakasten ahaleginduko naz, baina ez deusot ezer inposatuko. Lan hori gatxa izango dala jakin badakit, eta akaso ez dot nire helburua lortuko. Horregaitik ebatzi dot betiko ipuinak ondo ikastea, guztion literatura diren horreek, Txanogorritxo, Loti Ederra, Barbantxo, Mari Errauskin... Badaezpada be. Eta horregaitik hasi naz *12 ipuin klasiko* liburua irakurtzen, hau be 2008an argitaratu dana, Susa eta etxearen eskutik. Liburu polita, testuei eta irudiei erreparau ezkerro.

Inork inoz duda egin badau liburu bat irakurtzea denpora galtzea ete dan, liburu hau irakurri leike, eta gero erabagi, irakurtzen segidu ala ez. Baina, hori bai, ez dogu pentsau behar irakurtzeak inor azkarrago egiten dauanik, edo zorionsuago. Irakurtzearen plazerraz gozatzea da helburua. Gero gerokoak.

Arantza Etxebarria Iturrate

LIBURUAK



Jabier Kalzakorta. Dantza-kopla zaharrak. Labayru Ikastegia, 2007, 336 or.

Iaz, 2007ko abenduan, plazaratu zen *Dantza-kopla zaharrak*, Javier Kalzakortak ondutako 332 orrialdeko liburua, Labayru Ikastegiaren Laratz bilduman.

Javier Kalzakortak berak laguntzen digu bere lana egoki kokatzen; hitz hauekin hasten baitu “Dantza-koplen liburu honen historia dela eta sarrera”:

Badira hamalau urte baino gehiago herri literaturaren esparruan neure oinak sartu nituela. Uste dut euskarazalea dena, euskararen ederra atsegin duena, euskararen ahokotasunak liluratzen duela lehenengo eta behin. Eta euskaren ahokotasun bero horren distira herri literaturaren generoetan bizi da, ene ustez.

Sarrera jakingarria bezain bikaina da (19-25. or.). Hor azaltzen du zer ibilbide egin behar izan duen eta nola bildu dituen koplak, zer aldizkari irakurritz, zenbat zoko miatuz; baita nola prestatu eta sailkatu dituen ere. Besteak beste (nireak dira letra lodiak, bai pasarte honetakoak, bai hurrengokoak):

Euskadi egunkari abertzaleko ale **guztiak** euskal sail **guztiak** ikusteko asmoa hartu nuen. Egunkariaren euskal atalaren ideia osoagoa izan nahi nuen. Folklore-aleak biltzeko ere, sailean ikustea baino sistema hoberik ez dagoe eta, hasierako urteetatik aurrera ale **guztiak** orraztu nituen. Bilbon Foru Aldundiaren bibliotekan egin nuen lan hori, uda batean baino gehiagotan, egun pasa lanera bibliotekara joanez.

Liburuan barrena, berriz, kopla sail bakoitza nola osatu duen azaltzen digu. Hala, Bidasoako koplak (207. or.):

El Bidasoa aldizkaria inongo bibliotekatan osorik aurkitzen ez nuenz gero, aldizkari-zuzendari izanaren alabarengana jo nuen. Ondo gogoan dut, gainera, *Amabost egun Urgainen* nobela idatzi zuen Loidi zenak jarri ninduela *El Bidasoa* aldizkari zuzendariaren alabarekin hartu-emanetan. Irunen bi goizetan apuntatu nituen aldizkari folklore ale **guzti-tatik** hogeita bi kopla hauek trikiti-koplen sailean sartuko nituzke.

Bi goiz oso, hogeita bi kopla kopiatzeko. Langile nekagaitzaren lanak! Eskerrak, tarteka, ustekabeko sariak jasotzen dituen (155. or.):

Juan de Arinek bildu zituen eske-koplen bila jo nuen Iñaki Arin Bastarrikagana. Ene ustekabearen handia: eske-koplak ezetik atal honetan transkribatuko dudan dantza-kopla sail zoragarria ere eskuetaratu zidan.

Guztira, 200 kopla dira Arinek bildu eta Javierren eskuetara ustekabearen etorriak. Honen iritziz, liburuko bildumarik ederrena osatzen dute, “Euskal dantza-koplen Kaperu Sixtina bezalakoa”, sarreran dioenez (25. or.).

Horrelako argibidez dago osatua liburuko kapitulu bakoitza. Guztira, hogeita bi kapitulu dira, aurretik dituztela Adolfo Arejitaren aurkezpena (11-17) eta Javierren

beraren aipatutako sarrera jakingarria (19-25); atzetik, berriz, beste lan aberats bat, “Hamaika ohar solte eta bat edo beste gehiago dantza-koplen gainean” izenekoa (313-327), eta Bibliografia (329-332).

Hogeita bi kapitulu horiek, berriz, bi sail handitan daude banatuak. Lehenengo laurak, saioak dira: I) “*Verso berriac Ambotoco Peru eta Antoni jarriac* sortaren gainean” (29-60), II) “Antonio Goitiaren berri apurra eta koplak” (61-74), III) “Matxalen Busturiko dantza-kopletan” (75-88) eta IV) “*Iruken ari nuzu kilua gerrian* eta trikiti-koplak” (89-98).

Ondorengo hamalau kapituluetan, beste horrenbeste kopladi datoz: Arantzazukoa, 114 kopla dituena (101-118); Arratiaukoa, 307 kopla (119-153); Ataungoa, 200 kopla (155-179); Eibarkoa, 44 kopla (181-186); Ereñokoa, 19 kopla (187-189); Galdakaokoa, 26; Gernikakoa, 94 (195-205); Irungoa, 22 (207-210); Mañarikoa, 243 (211-238); Markinakoa, 46 (239-244); Nafarroakoa, 37 (245-250); Ondarroa eta Lekeitiokoa, 34 (251-255); Uberakoa (Bergara), 26 (257-259) eta Zeberioakoa, 106 (261-270).

Kopladi terminoa dela-eta, Kalzakortak berak dio sarreran (21. or.) Manuel Lekuonak erabilia dela, gaztelaniazko *coplario* delakoaren ordainetan, eta horregatik darabilena berak ere. (Esan beharra dago, bide batez, Euskaltzaindiaren *Literatura Terminoen Hiztegia* argitara berriak ez dakarrela termino hori.)

Horiez gain datoz liburuan Manuel Lekuonaren bildumako koplak, guztira 56 (271-277); zenbait lan monografikotan plazaratuak, 144 (279-293); Labayruko artxibokoak, 73 (295-302) eta kopla autore-dunak, 110 (303-312).

Denera, 1.800 kopla dira ia, kontuak ondo atera badituzte. Hala ere, Javierrek dio (25):

Ez dago esan beharrik egin dudan lanerako oso uzta urria dela, inolaz ere.

Egindakoa hor dago, orde; distira dariola. Izan ere, Javierren beraren hitzetan (23. or.):

Euskal dantza-koplak Japoniako haikuen antzekoak dira, alde batera. Olerki minimoetan pentsamendu bat edo eztenkada bat edo ideia poetiko bat borobiltzen da. Gure dantza-koplak beti iruditu zaizkit Euskal Herriko haikuak: silaba gutxitan ideia zorrotz eta harrigarria gordetzen dutelako.

Eta jarraitzen du:

Beste konparantza hurbilago bat erabiltzera, euskal dantza-koplak gure aho literaturako jakirik primoreetan primoreenetakoak iruditu zaizkit beti. Beste era batera esan, euskal dantza-koplek badute basa-marrubiekin bateratasuna. Basa-marrubi bila basora sartzen bazara inoiz, irakurle maitea, kontu handia izan behar duzu hankapean lehertu ez dezazun bila zabiltzana. Orri artean behin marrubi gorria ikusiz gero, hazmamien artean kontuz hartu eta ziri batean sartu behar duzu. Bi hazmamietan baldarki hartzen baduzu, desegin egingo zaizu basa-fruitu xinglea. Zirian sartu beharrean ahora eramaten baduzu, mihi edo ahosabaia ukitu bezain laster desegin egiten da fruitu basotarra, dakizunez; eta desegin bezain laster zapore hauta izango duzu. Zapore hori, gainera, pertsonala da. Basa-marrubia ahoratzen duenak bakarrik daki basa-fruituaren zaporearen berri. Eta basa-marrubia ahoan desegiten den bezala, bizten eta ermetzen da kontzientzian.

Zer-nolako sentiberatasuna eta finezia darien Javierren hitze! Pasarte amaitzeko, berriz, dio:

Zinez diotsut: haur baten atzokolaren tamainako basa-marrubi bakarrik zapore handiagoa eta gozoagoa du negutegietako marrubi erraldoi guztiek baino. Niri, –aitorpen modura diotsut hau, irakurle maitea– liburu honetako koplak bakoitza basa-marrubi gozo bat dirudit.

Bestela esan, dantza-kopla bakoitzeko bizipoz bat izan dudala iruditzen zait, kontzientziaren alegatze bat. Koplen esangura azalduz gero, bere zaporea gutxitu edo goxo gezatut egiten da. Kopla bakoitzak oihartzun berezia du bakoitzagan.

Eta, hain zuzen, batik bat kopla horiek guztiak biltzea izan da Javierren lana. Baina, horretara mugatu gabe, hainbat eta hainbat azalpen ere egiten ditu liburuan zehar, irakurlearen lagungarri eta koplen argigarri. Sarreran bertan, honako bi kopla hauek eskaintzen dizkigu xehetasun harrigarri bezain argigarriz (24):

Igaz ogei urte ta
aurten emeretzi,
zuretzat nago ni
biar edo etzi.

Oraingo mutillek
Bana-binekoak:
Lapiko tapatzat
Ala-galakoak.

Are gehiago, autoredu koplak batzuk ere bildu ditu azkenean –guztira 110, esan dudanez–, honako sarreratxo hau aurretik dutela (304):

Herri-koplak, nire ustez behintzat, mila bider politagoak izan ohi dira autore-koplak baino. Nik behintzat ez dut ikusten herri-kopletako jenialtasunik ondoko sortetan. Herriaren zigilua berdindu edo imitatu ezina da. Urteen joanak eta gizaldiz gizaldiko kate luzeak ematen dien distira ez dute kopla hauek. Herri-koplak urrezko koplak distiratsuak badira, bestetxo hauek lurrezko koplak ilunak, besterik ezinean. Liburu honetako herri-koplen sail guztien ondoren, ez ote du merezi autore-kopla sail batzuk ere agertzea? Ez ote ditu kontraste honek ederragotuko gure herri-koplak?

Horiek horrela, ez da harritzekoa hone-la amaitzea Adolfo Arejitak liburua aurkezpena (17):

Berba baten, dantza-koplen arloan inoiz batu dan corpusik aberatsena eskeintzen deusku ikertzaileak, bestek nekez emon leikezan zehaztasun eta zidurri guztiez homidurik.

On eta probetxu egin beigu irakurle guztioi liburu honek, ze ez dago esanienik, gozamina berez sentiduko dogu libururaren orrietan atxina joan ahala.

Pello Esnal

